


# ttüpi-ttapa

1995eko ekainak 15 • 160. zenbakia

Elkarrizketa

**Bittori Telletxea:**  
**«Beran, Lore Jokoak**  
**asteburu honetan»**



**LAXOA TXAPELKETA**  
**BERO-BEROAN DAGO**



Hauxe da  
urte osoan  
telefonoaren  
ondoan eduki  
behar duzun liburua



## **ttipi-ttapa**

**urte oso batez  
(24 aldizkari)  
Ameriketara  
bidaltzeak  
8.000 Pta. balio du.**

**Interesatua egon  
ezkero, deitu  
948-631188ra**



## DATUAK

❖ Ekainaren 17 eta 18an Beran ospatuko diren Lore Jokoetan antolatzaile lanetan ari da.

❖ Duela ehun urte ospatu ziren lehen aldiz Lore Jokoak Beran eta gaur egun Kultur Astearen pareko besta zela erran daiteke.

❖ Garai hartan, Antoine D'Abbadie izaten zen Lore Jokoen antolatzaile eta sustatzailea, eta Beran bezala, Urruñan, Elizondon, Saran, Donostian, Oiartzunen eta bertze herritan ere izan ziren.

Bittori TELLETXEA MAIA:

# «Lore Jokoak aukera ona dira dugun kultur ekimena erakusteko»

## ZER DIRA LORE JOKOAK?

Berez, Lore Jokoak XIX. mendean ospatzen ziren, eta herri bakoitzean, tokian tokiko kultur ezaugarriak biltzen ziren. Beran, 1895ean ospatu ziren eta urte hartan Berako Dantzariak eta Irungo Bandak hartu zuten parte. Horretaz gain, pilota partiduak ere izan ziren eta baita azinda merkatua ere.


Oraingoan, Berako Banda izanen da joko duena eta ez dugu Irunera joan beharko Banda baten bila, eta Bandarekin batera hor izanen ditugu trikiti-xak, abesbatza, dantzariak, antzerkilariak, bertsolariak, gaiteroak, txaranga... Aukera ezin hobea, hauxe, momentu hauetan dagoen kultur ekimena erakusteko.

## NOLAKOA ZEN ORAIN DELA 100 URTEKO BERA?

1.700 biztanle zituen eta jendeak baserrian egiten zuen lan. Bakarrik lantegi bat zegoen.

## ETA NOLA BURURATU ZAIZUE LORE JOKOAK BERRESKURTATZEA?

Azaroan egin zen Kultur Zikloan Joxe



Angel Irigaraik komentatu zigun orain 100 urte Lore Joakegin zirela, eta hortik hasi ginen.

## NOLAKO HARRERA ESPERO DUZUE JENDEAREN ALDETIK?

Ekitalde desberdinetan Beran dauden kultur erakunde guzikiak parte hartzea eskatu

zaie. Bertzalde, Bortzietako jendea hurbilduko dela espero dugu.

## NOLA BALORATZEN DUZUE LITERATURA LEHIAKETAK IZAN DUEN PARTEHARTZEA?

Ongi. Euskal Herri osotik bidaliak 46 lan aurkeztu dira, eta hoietatik 14 ez dira onartu deialdian eskatzen ziren baldintzan ez betetzeagatik. Hortaz, kontutan hartzen baldin badugu euskal literaturak duen ahulezia, kopuru dexentea

iduritzen zaigu.

## HURRENGO LORE JOKOAK HEMENDIK EHUN URTERA...?

Aurtengoak ongi ateratzen baldin badira eta euskal literatura, olerkigintza eta bertsolaritza indartzeko bederen pausu tiki bat dela ikusten bada, hemendik urte batzutura zergatik ez berriz antolatu. Dena den, ez dut uste 100 urte espetu beharko denik. Urterik ilunenak pasatuak dira, hemendik aitzinera etorkizun ederra dugu.

» *«Aurtengoak ongi ateratzen baldin badira eta euskal literatura indartzeko pausu bat baldin badira, zergatik ez berriz antolatu hemendik urte batzutura»*



**Ekainaren 11 eta 18ko finalerdien ondotik, ekainaren 25eko eguerdian, Angelusa errezatu ondotik, hasiko da Baztan-Errekako Laxoa txapelketaren finala. Berrikuntza haundirik ez da izanen palmaresean, orain arteko hamabortz edizioetan txapeldun suertatu diren hiru herrietako ordezkariak baitaude aurten ere finalerdietan.**



TESTUA :  
AITOR AROZENA  
ARGAZKIAK:  
ZALDUA

# MAIATZAREN 25EAN

## XVI. LAXOA

# TXAPELKETAKO FINALA



DONAMARIAKO PLAZA JOAN DEN URTEAN ESTALI ONDOTIK, ARRAIOZ, OITZ, IRURITA ETA DONEZTEBEKO PLAZAN JOKATU DIRA AURTEN LAXOA PARTIDUAK. ARGAZKIAN ARRAIOZKO PLAZA.

**Z**ortzi aldiz izan da Doneztebe txapeldun, Oitz bertze lautan eta Irurita gainerako hiruetan. Igande honetan, finalerdietako itzuliko partiduak jokatu dira. Eguerdian, Doneztebe B eta Oitz A arituko dira eta 6etan Doneztebe A eta Irurita. Beraz, ez da sorpresa haundiegirik izanen eta, antolatzaileen ustez, inoiz baino txapelketa berdinduagoa izan bada ere (azken partidura arte bederatzi taldeetatik zazpi zeuden finalerdietako txartela eskuratzeko aukerarekin), dagoeneko txapela irabazia duen herri batera joanen da aurtengoa ere. Joku maila ere arras ona izan da lehen fase honetan, nahiz eta jende aunitz ez den joan partiduak ikustera. Finalerdietan eta finalean ordea, jendez gainezka ageriko dira laxoa plazak, seguraski.

### EUSKALDUNON LEHEN KIROLA?


“1870. urtera arte laxoa zen Euskal Herriko kirol nagusia”. Honela solasten da Tiburtzio Arraztoa, Laxoa elkarteko kidea. “Baztango Balleko Etxean bada XVIII. mendeko dokumentu bat, herri guztetan laxoa plaza zegoela eta bertan jokatzeko zela erranez”. Garai hartakoa da pilotak eman zuen lehen izarra, Aldudeko Perkain. Tiburtzioren ustez “ez dakit laxoa jokalaria onena izan den, baina bere inguruan leienda bat sortu zen herrian gendarme bat hil baitzuen. Berekin batera hasten da pilotaren historia, paperak hortik hasten dira”. Laxoa, halere, lehenagokoa ere bada Arraztoaren erranetan. “Erdi Aroan sortu zen, Frantziako ‘Jeu de Palme’ kiroleatik. Hortik sortu zen tenisa ere, baina honat pilota etorri zen bitartean tenisa iparraldera, Inglaterara eta, joan zen”.

XIX. mendeko bigarren erdia hasi zen kirol honen gainbehera, ‘blé’, zesta pun-



## TXAPELDUNAK

1980.....	IRURITA
1981.....	DONEZTEBE
1982.....	DONEZTEBE
1983.....	OITZ
1984.....	OITZ
1985.....	DONEZTEBE
1986.....	DONEZTEBE
1987.....	DONEZTEBE
1988.....	OITZ
1989.....	DONEZTEBE
1990.....	OITZ
1991.....	IRURITA
1992.....	DONEZTEBE
1993.....	IRURITA
1994.....	DONEZTEBE
1995.....	?



1993ko LAXOA TXAPELKETAREN FINALA JOKATU ZUTEN ZORTZI PILOTARIAK. ZUTIK TXAPELDUNAK (IRURITA) ETA TOTORIKA AZPITXAPELDUNAK (OITZ).

ta edo joko-garbia bezalako jokoen eta frontioen sorrerarekin batera. Gero eta guttiago jokatzen hasi zen, ez baita kirol ikusgarria. Halere ezin da bertze kirolekin konparatu. Tiburtzio Arraztoak adierazi duenez, "Laxoa ez da kirola bakarrik, gure historia eta kulturaren sartzaren gauza bat da. Horregatik garrantzi gehiago eman behar zaio eta gure altxorra bezala gorde". Gaur egun, bakarrik lau plazatan jokatzen da, Irurita, Doneztebe, Oitz eta Arraiotzen. "Joan den urtean estali zuten Donamariako plaza eta hura ere, akabodio Laxoa elkarteko kideak - Badira plaza gehiago, Elizondon, Arizkungo Lamiarriatan, baita Ultzama eta Leitzaidean ere, Areson adibidez. Egoera onean daude, baina ez da jokatzen". Laxo-jokalari gazteak, gainera, erremontera pasatzen dira, profesional bezala aritu eta dirua eskuratzeko aukera baitute. Laxoan berriz, auniztan norberaren sakeletik dirua paratu behar. Erremontean ari diren dozena erdi bat profesional, Doneztebe eta Iruritaok, laxoatik ateriak dira. Urrun gelditu dira, herriz herriko plazetan jokatzeaz gain, artzaiek elkarren arteko nor-

gehiagokak soropiletan jokatzen zizuten garaia.

### LAXOA ELKARTEA: KIROLA BERRESKURATZEKO AHALEGINA

Ez da errex, garai hartako arrakasta lortzea eta oraindik guttiago, Euskal Herri osora zabaltzea. 1982an, ki-

rola desagertzeko beldur zegoen lagun talde batek Laxoa Elkarte sortu zuen, "Baztan eta Malerreka aldean, laxoa mantentzeko intentzioarekin" Horretarako, urtero urtero txapelketa antolatzeaz gain bertzelako ekitaldiak ere egin dituzte. Uda aldera, Kopa

txapelketa jokatuko da kanporaketa sistemaren bitartez. Haur eta gazteen liga-txapelketak ere uda partean jokatuko dira.

Ez dira beraz, partidurik ikusi gabe geldituko herri haue-tan. Jendeak erantzutea bertzerik ez da falta. ■



**Tiburtzio ARRAZTOA**

Laxoa Elkartekoa

«Dirua ez da behar dugun laguntza bakarra, bakarrik gaudela somatzen dugu»

#### ■ Zain arazo nagusi ditu gaurko egunean laxoak?

□ Bakarrik gaudela. Hori da guk somatzen dugun problema haundiena. Ez digu inork laguntzen hau aitzinera ateratzen. Dirua ez da behar dugun laguntza bakarra, moralaren aldetik ere inguruko jendearen babes behar dugu. Etorkizunera begira, ez dakit noiz arte irau-nen duen laxoak.

#### ■ Nolako dirulaguntzak izatzen dituzue instituzio-etatik?

□ Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen digu eta Federazioak ere zerbait ematen du. Lan ona egiten ari garela eta hortan segitzeko erratan digute.

#### ■ Zer iduritu zaizue Pilotarien Batzarrak eskainitako omenaldia?

□ Moralaren aldetik inportantea da, norbait oroitzen dela erran nahi du, nahiz eta kanpokoak izan oroitzen direnak. Baina gustora joan ginen Lesakara eta gustora gelditu ginen.

#### ■ Laxoa erremontean harrobia da. Nola baloratzen duzu esaldi hori?

□ Gazteak, 14-15 urtetarako erremontera pasatzen dira, profesionalki hortik dirua ateratzeko aukera baitute. Hori gazteentzat ona da, noski, profesionalak atez gero hortik ateratzen baitute bizimodua, baina gure-tako kaltegarria da. Urtero udan gatzetxo eta haurren-dako txapelketak antolatzen ditugu, baina aurtan ez dakit egingen dugun.



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85  
FRANKEO ITUNDUA: 34/79  
TIRADA: 6.000 ALE

ARGITARATZAILEA: TTAPI-TTAPA KE  
HERRIKO ETXEO PLAZA, 1  
31780 BERA  
TFNOA: 63 11 88  
FAXA: 63 12 91

**uzendaria:** Joxemanuel Iri-  
en. **Publizitatea:** Miren Kar-  
ele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor  
ozena, Joxemanuel Irigoien.  
**Administrazioa:** Amaia Goia.  
**Erredakzio taldea:** Pello Ape-  
txea, Juainas Paul, Kristina  
Boan, Bittori Telletxea.  
**Erreimailak:** Joseba Azpiroz,  
Esteban Arozena, Juana Mari  
Aizar, Ainhoa Mutuberria, Iban  
Lasa, Txema Aldabe, Pello  
Apeztegia, Txema Urroz, Patxi  
Aizandorena, Daniel Martirena,  
Label Maia, Josune Etxebeste,  
Pablo Mendiburu, Joseba  
Aparabide, Alizia Olaizola, Margari  
Aizenike, Koro Irazoki, Mixel  
Aizendiain, Jacqueline, Elixabet  
Aizuri, Garbiñe Maiz, Oskar  
Aizopenera, Alberto Sansiñena,  
Pello Apeztegia, Aitor Arozena,  
Kristina Boan. **Kolaboratzaileak:**  
MINE Nafarroa, Patxi Lasa, Mikel  
Aizunarte, Joxe Javier Etxe-  
rria, Arantxa Zabala...

**Primategia:** Gertu (Oñati).  
**ttipak** ez du bere gain har-  
en derrigorrez, aldizkarian adie-  
ritako erranen eta eritzien eran-  
kizunik.

**akunde Laguntzaileak:** Bera,  
Goizueta, Areso, Baztan,  
Lazubi, Zugarramurdi eta  
Gorria udalak, Bortziritako  
Mankomunitatea,  
Mankomunitateak, Zerbitzu Mankomu-  
nitateak...



Aldizkari honek Nafarroako  
gobernuaren laguntza jaso du

## GAURKOTASUNEN GAIA

### Herriko bestetan musika zertarako?

#### Musika ezinbertzekoa denez, irtenbidea hautamenean legoke



Frederick BERRUET  
Sarako ikaslea

Azken aldiotan, gure herrietako besten alaitzeko

baino gehiago, musikak halako isilunearen betetzeko bai- zik ez duela balio dirudi, ikusirik zer nolako harrera eska- sa duten dantzaldi talde gehie- nek. Izan ere, betidanik musi- ka bestari (eta alderantziz) lo- tua izan bazaio, gaur egun ba- dirudi herriko besten arrakasta musika taldeen famaren ara- bera neurtzen dela, antolatzaile ainitzen helburua ahalik eta jende gehien biltzea delarik, bestaren egiazko betekizuna alde batera utziz. Denok da- kigu gero eta jende guttiagok dantzatzeko duela, batez ere os- tatan geldi-geldia dagoenjen- de andanarekin konparatu ez- kero. Beharrezkoa ote da bos- pasei egunez, dirua kostatzen eta lau garentzat ari den tal- derik ekarraztea egunero? Besta egiteko musika ezinber- tzekoa zaigunez, baliteke ir- tenbidea hautamenean egotea, adibidez egunero musika mo- ta desberdina eskainiz (rocka, folka, kantua...) edota giro be- ro eta herrikoia sortzen duten txaranga, gaitero etabarrei me- rezi duten lekua emanez.

#### Dantzaldiek zuten betekizuna gaur egun ostatuak hartu dute



Jose Mari ARRAZTOA  
Soziologoa. Elizondo

Jokabide honen azalpena hurbiltzeko kontu-

tan hartu behar ditugu hiru abiaburu: testuinguru soziala, ostatuak eta jendea. Dударik gabe, guzi honetan testuingu- ru sozialaren pisua determi- nantea da. Lehen, dantzaldiek jendea biltzeko balio zuten. Orain eginkizun hori ostatuak betetzen dute. Are gehiago, edozein herritan ostatuak di- ra orain 'jendearen biltoki' na- gusiak. Bertze faktore deter- minantea, besta eta alkohola- ren arteko lotura estua genu- ke. Izan ere, alkoholaren kont- sumoa eguneroko ohitura bihurtu da, eta bestetan orain- dik gehiago. Berezko nortasu- na duten musika giro desber- dinak sortzerakoan, ostatuak berebiziko garrantzia hartu du- te, eta sekulako kompetentzia egiten diete zuzeneko musika emanaldiei.

Bi kontu horiek klienteen fi- deltasuneran eraman gaitu. Bi jendemultzo desberdin sortu dira, bakoitza bere jokamol- deekin. Batetik ostatuak, gaz- te jendearen bilgune gisa, eta bertzetik dantzaldiak, jende heldu, guraso eta abarrekin.

#### Ohiturak aldatuko dira



Esteban AROZENA  
Udal-kidea. Goizueta

Amabirjin feste- tako musika milioi bat t'erdi

kostako zaio Goizuetako udalari. Berbenotan dantzan ibiltzen den jende multzoa ikusirik badirudi ez zaiola 'errentagarritasunik' ateratzen dirutza honi, 13-14 urte- ko haurrez gain oso gutxi baitira talde hauen musika gogoko dutenak edo gutxie- nez, herriko plazan dantzan egin nahi dutenak. Adin ja- kin batetik gorakoentzat mingarria da zalantzarik ga- be festetan plaza hutsik ikus- tea, batez ere lehengo ga- raiak gogoan dituztenentzat. Halere, ezinbestekotzat jo- tzen dut plazako musikaren presentzia, besteak beste he- rriari festa giroa ematen dio- lako. Norbaitek imajina ahal dezake festetako gau bat ber- benarik gabe? Igual da inork dantzarik egiten ez badu ere. Beste ohitura askoren antze- ra, festetakoak ere krisian daude, musika bezala zeze- nak ere. Dena den, zikloka mugitzen omen da mundua, eta honek esan nahi du dan- tzatzeko lehengo toki eta erara berriz itzuliko garela.



# KATTU

OSTATUA  
JATETXEA

MATXINBELTZENA

LESAKA



Arretxea, 22 • Tel.: 62 75 73, Faxa: 62 75 53 • LESAKA

# EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko  
orekarik hoberena

Frexkuena  
zugandik  
hurbilago

Bittiria, 67 - © 637264



## BOTA BERTSOA



### Herriko bestetan musika zertarako?

Iñigo OLAETXEA

Neurria: Sei puntukoa

Inkonformista xamarrek gara  
beti edo gehiengan  
ta arrazoi bat liteke hori  
aukera aztertzen denean  
"lo que yo quiero ser torero" ta  
"pajaritos" onenean  
hori kutrea ez balitz berdin  
Barrikada zuzenean...  
nahiz eta itsuxi gelditzen diren  
plazak hutsak daudenean  
beteko dira kontzertu onak  
antolatzen direnean.

Nonbait gelditzen garen unean  
ostatu bat da ohitura  
gainera ongi pasatzen dugu  
alkohol tantaren kontura  
ostatueta elkartzen denez  
egun daukagun kultura  
giroa non den jendea hara,  
berotasun ingurura  
plaza ondolik pasatakoan  
hau da soilik dugun duda  
zerbait hartzera goazela baina  
ez dakigu ze ostatura.

### Zorionak

#### TTIPI-TTAPA-ri

Azkeneko alearekin bate-  
ra sorpresa atsegina hartu  
genuen etxean. 'Gida-95'  
izeneko liburuxkaz ari naiz.  
Gaietik begiratuta, behin-  
pin, arrot interesgarria  
ematen du. Praktiko da  
eta momentu batean edo-  
zein ofizialeren telefonoa  
behar izan ezker, lagun-  
tza haundia da gure ingu-  
ruan zein dauden jakitea si-  
kiera. Aski polita da.

M<sup>a</sup> JESUS OLAIZOLA

### Abisua jendeari:

'Marmoles y Granitos Hnos.  
Blanco'-k zera jakinerazi  
nahi du:  
Badabilela Bidasoaldean  
beste enpresa bat, gure lan  
beretsuetan ibiltzen dena,  
bere mesederako gure en-  
presaren izena erabiltzen  
duena.  
Hori dela eta, jakinaren gai-  
nean jarri nahi ditugu inte-  
resatuak egoten ahal diren  
pertonak, gure enpresak  
Berako herriaren erdi-er-  
dian duela bere sukurtsa-  
la, Kanttonberri karrikako  
4. zenbakian, Euskadiko

## IRAKURLEAK MINTZO

Kutzak duen bulegoaren  
ondoan, eta gure telefonoa  
631052 dela.  
Besterik gabe, eskerrik as-  
ko.

Hnos. BLANCO



### Lesaka papera birziklatzearen alde

Guraso batzuren inizatibaz  
paper bilketari ekin diote  
Lesakarrek, eta arras bil-  
keta polita egin dute. Orain,  
hori ikusirik, hilabetean pa-  
re bat aldiz ekinen diote lan  
horri ilusioz beterik.

Auniztan batzuren inziati-  
ba nahikoa da herri oso bat  
honen alde bihurtzeko.  
Gure haurrak izan dira kont-  
zientziarik haundiena har-  
tu dutenak eta paper gu-  
ziak bildu egiten dituzte.  
Honelako joerekin itxaro-  
pentsu agertu behar dugu,  
etorkizunean, ingurugiroa  
guk baino hobeki zainduko  
dutelako.  
Instituzioendako garesti ate-  
ratzen den zerbitzu bat jen-  
dearen gogoarekin erraz-  
ten ahal da. Animatu nahi  
nuke jendea bertze herrie-  
tan honelako ekimenetan  
sartzeko, eskola-ikastola,  
gurasoak-ikasleak apropos-  
ak izan daitezke lan ho-  
netarako.

Animo.


MIREN KARMELE TOLOSA

### OHARRA:

Eritzi ezbedinek  
tokia izan dezaten,  
ez da komeni  
makina idatzitako 25  
lerro baino luzeago  
idaztea gutun  
hauetan. Idatzi  
duenaren  
izen-deiturak,  
telefonoa, helbidea eta  
ENAAren zenbakia  
agertu beharko dira.  
Laburtu beharra  
izanez gero, **ttipi-  
ttapak** bere esku  
izanen du horretarako  
eskubidea.



LESACA



## ESTHER ATEAK, C.B.

Zarandia 9,

☎ 627584 - LESACA

☎ (943) 610319 - IRUN

- ➔ Parket flotantea
- ➔ Tarima
- ➔ Korloa
- ➔ Ate korrederoak dituzten armarioak
- ➔ Paretan sartzeko armarioak



## LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera ☎ 630735

Irun ☎ (943) 622305





Egunkaria 95-VI-7

«Bagenekien alde haundia dagoela historia ofizialaren eta norberak biziutako-aren artean, baina ez genuen alde hori hain haundia izatea espero. Bestalde, ideologia estalirik, gordea egotea espero genuen, eta hala gertatu zen».

Zubieta 1931-1936  
liburuaren egileak  
Egunkaria 95-VI-7

kezkarriak eta itzaropentsuak agertzen dira. Batetik, euskara hizkuntz minorizatu da oraindik, baina bestetik, eten egin da euskararen galera eta aurrera doa berreskurapena, mantso bada ere».

Paquita ZABALETA  
Leizarra. Hizkuntza  
Politikarako Zuzendaritza  
Nagusiko Programazio burua  
Egunkaria 95-VI-7

«Egoera soziolinguis-  
tikoan seinale

◆ **85 urte beteak eta?**

- ❖ Pozik sentitzen naiz
- ◆ **Hartzea gustatuko litzazukeen erregalo bat?**
- ❖ Familia eta lagunekin bakean izatea.
- ◆ **Donamaria edo Donezteben?**
- ❖ Donezteben, senarra zenak hil baino lehen honat etortzeko erran zigun.
- ◆ **Zure denborako gazteak edo oraingoak?**
- ❖ Gure denboran lan azkarki, uhaldean arropa garbitzen, ...
- ◆ **Zuretako pertsona gaixtorik ba al da?**
- ❖ Ustez ez, ni ez bainaiz inorekin metitzen.

◆ **Ziztua jo edo kantatu?**

- ❖ Lehen Artzen ziztua jo eta Garmendia mendian ederki aditzen zuten nere ziztua, orain hortz hauekin...

◆ **Baserriko lanak edo neskato?**

- ❖ Neskato hobeki guretako, orduan 5 duro irabazten genuen hilabeteko egun guztiak sartuz.

◆ **Sendabelarretan federik ba al duzu?**

- ❖ Bai, hartzen ditut maiz.

◆ **Bidaietan ikusi duzun leku politena?**

- ❖ Lourdes eta Benidorm gustatu zaizkit, orain utziak ditut, aspertu eta izitzen naiz.

◆ **Bizi honen martxa nolakoa iduritzen zaizue?**

- ❖ Sobra abudo doaie, pentsa! lehenbiziko radioa orain dela 28 urte ezagutu nuen.

◆ **Eta telebista noiz?**

- ❖ Lehenbizikoa Donamariako Bentan, baina ikustea ez zait inoiz gustatu izan.



**Lidia GOÑI**

Doneztebekoa. 83 urte.  
Aurten omenaldia egingen diote.

**GRUPO ZURICH**

**ASEGURO OROKORRAK**  
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63

**GOZOTEGI-JAIONE**

Itzea 3 • 630786 • BERA

**ANSONEA**  
**JATETXEA**

*Kontsultatu menu bereziak*

Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630072 • **BERA**

**EDARIAK**

**MANUEL TABERNA S.L.**

Bidasoa K. 82 - 31780 BERA  
Tel. - Fax: 948. 63 10 27



**Bera**

## Lore Jokoak eta Korpus Eguna asteburu honetan

Orain ehun urte Beran ospatutako literatur lehiaketa gogoratu nahi da Lore Jokoetan

KRISTINA BOAN

Hurrengo asteburuan, ospakizun ugari izanen dira herrian. Batetik 'Korpus Eguna' dela eta prozesioa ateriko da karririk zeharkatuz eta bertetik 'Lore Jokoak' ospatuko dira.

'Lore Jokoak' Euskal Herrian barrena antolatzen ziren literatur lehiaketak ziren funtsean. Baina hau aitzakizat hartuz bertze haibertze ospakizun ere egiten ziren. Aurtentzen, Lore Jokoen mendeurrena ospatzen den honetan aspaldi batean bizitu ziren kontuak berpiztu nahi dira. Hori dela eta 17an Berako ikastetxeetako umeez azkeneko bi hilabeteetan prestatu duten liburu kankailua aurkeztuko da. Liburu hone-



Aste honetan bertan irekiko omen dituzte hiru piszinak, moldaketak akautu ondotik.

Artxiboa

tan, ipuinak eta marrazkiak biltzen dira.

18an berri, D'Abbadieren etorrean antzestuko da, lan horretan Berako musika, kirol eta kultura

talde desberdinek parte hartuko dutelarik. Beran barrena ibiliko da eta gune nagusia Herriko Etxeko Plaza izanen da. Antzespentzen hau erreala goa egite-

ko, Berako jendea 1895. urte inguruko janzkerarekin ateratzea eskatzen zaio. Azkenik, literatur lehiaketaren sariak partituko dira Kultur Etxean.

### Besterako argazki eta kartel lehiaketa zabalik

Ekainaren 30ean akautuko da Berako bestetarako argazki eta kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea.

Lanen gaia Bera izanen da, besta garaian nahiz bertze edozein garaian. Neurri dagoenez, argazkietan 18x24 eta karteletan

24x30koak izanen dira. Lehiaketa hauetan ohikoa den bidalketa sistema erabiliko da.

Berako zinegotziek osatutako epaimahiak bi sari banatuko dituzte, 15.000 pezetakoa aukeratutako lanarentzat eta 10.000 pezetakoa akzesita.

### Pintura ikasleen margoak Kultur Etxean ikusgai

Ekainaren 24 eta 25ean ikusgai egonen dira Kultur Etxean, Berako pintura eskolako ikasleek ikasturte honetan egindako zenbait lan.

Guztira 80 margoan zintzilikatuko dira, bi ikasle bakoitzeko. Ttikienak marraz-

kiak erakutsiko dituzte eta haundienak teknika ezberdinekin egindako margolanak. Erakusketaren ordu-tegia, arratsaldeko 7etatik 9ak artekoa da.

Sei eta hamazazpi urteko berrogei ikasle aritu dira aurtengo ikastaroan.

*ttipi-flash*

### Zabortezia hobetzeko

lanen aurrekontuak izan duen igoera esaltzeko 5,1 milioi pezetako dirulaguntza jaso du udalak Nafarroako Gobernutik. Zabortegetik herriko saneamedu sareraino 2.887 metro luzerako kolektorea egin da.

### Igerilekua

idekitzeko sasoia heldu da. Aste honetan bertan beteko omen dituzte hiru piszinak. Orain arte moldaketa lanean aritu dira, baina badirudi akautu dituztela eta jendea hartzeko prest daudela. Aurtengo arduradunak Jose Luis Irigoien, Maite Elgorriaga eta Iñaki Sese dira.

### Administrari laguntzaile

berria kontratatu du udalak. Gemma Mitxelena Agesta lesakarra da eta 30 lagun artean aukeratu izan da.

### Antzerki jardunaldiak

ospatu ziren ekainaren 7, 8 eta 9an. Berako ikastetxeek horretaz gozatzeko aukera izan dute hiru egun horietan. Irungo BAI antzerki taldeak antolatu eta gidatu du erakustaldi hau eta hagitiz harrera ona izan omen du.

**OKANE**

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

**SAROB**

okindegia



SANDERS Penthuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



**Lesaka**

# Irain dantza taldeak urteko egitasmoa azaldu du

Ekainaren 24an burutuko den 'I. Jota eta Arin-Arin lehiaketa' izanen da lehen ekitaldia

**AITOR AROZENA**

Irain Dantza taldeak aurtan izanen dituen ekitaldien behin behinoko egitaraua aurkeztu du.

Ekainaren 24an, lehen aldiz antolatu duten Jota eta Arin-arin lehiaketa burutuko da eskolan 14 urtetik behitiko taldekideei zuzendua. Uztailaren 2an, frontoian San Ferminetako festibalean parte hartuko dute. Urriaren 22an Lesakako VIII. Dantzari Txiki Eguna ospatuko da, Euskal Herri osoko taldeen partaidez erekin.

Bertzalde, herritik kanpo eginen dituzten ekitaldien artean, irailaren 23 eta 24an, Bartzalonako Mercé bestetan parte hartzea izanen da azpimarragarriena.

Irain dantza taldeko kideek adierazi dutenez, jantziak berrietzeko ahalegin ekonomiko handia egin dute aurtengoan.



Lau eta hogeitazazpi urte arteko 90 dantzari eta musikari inguru ditugaur egun Irain Dantza taldeak

## Urrezko Ezteiak ospatzeko besta izanen da heldu den asteartean

Avelino Susperregi eta Baldomera Etxepeteleku eta Jose Mari Irurieta eta Maria Larraldekin osatutako bikoteek ezkondu 50 urte bete dituzte aurtan eta hori ospatzeko besta antolatu du astearte honetarako, ekainak 20, CANeko

'Urrezko Adina' klubak. Egitaraua eguerdian hasiko da, Santiago Irigoienek zuzenduta txistulari beterranoek eginen duten kalejirarekin. 12,30etan ongiatorria eskainiko zaie gonbidatuei Jubilatuen egoitzan eta handik

mezetara joanen dira txistulariekin batera. Mezan, Miguel San Miguel tenorea eta bertsolariak aditu ahal izanen dira.

Bazkaria frontoian izanen dute eta bazkalondoan, bikoteak omenduko dira. 4,30ak aldera, Estrella

Blanco artistak 'cuplet' kontzertua emanen du eta dantzaldia izanen da Zeus orkestaren eskutik.

Bazkariaren prezioa 1.500 pezetakoa izanen da bazkideentzat eta 3.500koa bazkide ez direnentzat. Txartelak gordetzeko CANeko bulegoetara joan behar da ekainaren 16a baino lehen.

*ttipi-flash*

### Denboraldi bukaerako bazkaria

ekainaren 18an, igandean, ospatuko du Beti Gazte elkarteak. Talde guztietako sariak banatuko dira bazkalondoan. Gogoratu behar da talde nagusia, Erregionaleko lehen mailara jeitsi dela.

### Paper biketa

Hilabeteko lehen eta hirugarren larunbat arratsaldetan eginen da.

### Zinea euskaraz

Euskarazko pelikula ikusteko aukera izan zen joan den astean Matxinbeltzanean.

**LEGARRA**

Legarra, 9 • © 63 70 30 • LESAKA

## ESKANTZAK

Uztailaren 31 bitarte baliagarriak dira

• Barrako pegamentua	447 Pta.	365 Pta.
• Pritt pegamentua'	165 Pta.	135 Pta.
• Staedlererrotuladorea	260 Pta.	205 Pta.
• Lapiz estutxea	335 Pta.	288 Pta.
• Portaminak	188 Pta.	155 Pta.
• 'Petrus' taladroa	1.345 Pta.	1.180 Pta.
• 'Petrus' grapadora	2.395 Pta.	2.028 Pta.
• 'Super block' koaderno	985 Pta.	765 Pta.
• Likido zuzentzailea	195 Pta.	135 Pta.
• 'Noris' lapitzak	69 Pta.	51 Pta.
• 'Loctite' pegamentoa (5 gr.)	655 Pta.	593 Pta.
• Karten baraja	202 Pta.	242 Pta.

**Deñe**

LENTZERIA  
MERTZERIA

Tfnoa.: 62 75 14

Beheko Plaza 8, LESAKA



Lore eta landareak

Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26  
LESAKA

**BEREAU**

Atetxea • Hotel

Lesakako Bidegurutzean  
Tfnoa: 63 73 82 - LESAKA







# Haurren Eguna hilaren 18an ospatuko da

Egunaren gehiena plazan emanen dute haurrek



Maiatzaren 28an egin zuten lehendabiziko komunioa haurrek

## Lizarietako aduanarako etxea ez diote oraindik herriari itzuliko

Herriko lurrean egin da aduanako etxea, herriak utzi baitzion horretarako lurra Estaduari. Orain, aduana lanak akautu direnez, etxea arrunt utzia da-

go eta hondatzen. Badira hilabete batzuk lurra itzultzeko eskatu zuela udalak, baina Estaduak ez omen dio zuzenean herriari itzultzen ahal, Nafarro-

ako Diputazioari baizik, eta honen bitartez herriari. Orain, Diputazioari egin dio eskari udalak gauza lehenbaitlehen moldatu nahian.

### ttipi-flash

#### ♦ Kanpaldiak

Zenbait urtez Oriora joan ondotik, Landagain eskolakoak Bortzirietako bertze eskolako haurrekin batera Nafarroa barraldera joan dira. Iruñeko harresiak eta katedrale berriztatua ikusi ondotik, Beire izan zuten egonleku nagusia, maiatzaren 29tik 31ra.

#### ♦ Dirulaguntza

Nafarroako Gobernuak 250.000 pezeta eman ditu kultur ekintzak antolatzeke. Hori Gobernuak ematearekin, udalak diru kopuru horren %35 gehitzeko obligazioa du, 87.500 alegia.

#### ♦ Jubilatuen besta

Jubilatuek 4an egin zuten urteko besta. Bi herritarren heriotza eragina izan zuen.

PELLO ETA ALBERTO

Eriaroaren hirugarrehaurrek izanen ditu goiz-arratsaldeko jende nagusiak. Urtean barrena eskolan egingako esku-lanak paratuko ditiguzte plazan ikusgai. 12,30ak aldera, idatzi dituzten ipuin oroitzen saria banatuko zaie, batzuk irakurri ondotik. Lehengo urteetan ez bezala, haur guzien ipuinak ere ikusgai izanen ditugu. Plazan bertan ttiki nahiz haundiei emanen zaien bazkariak ez du huts egingen, noski. Ezin atzendu trikitilariak, tarteetan giroa alaitzen joanen direnak. Arratsaldez, berriz, Animazio Taldeak bere saio berezia eskeiniko du.

**XATURETXEA**  
  
**JATETXEA**  
 Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

**CAPDEQUI**  
**24 ORDUKO BUS ZERBITZUA**  
 • 17 jarlekuko mikrobusa  
 • 55 jarlekuko autobusa  
 • Afari, despedida, sagardotegietara joateko  
 ☎ (943) 300139 • 908.671469 • ANDOAIN

**LESAKAKO**  
**Bideo-cluba salgai**  
 Pelikulak, mobleak, bideoa. Prezio onen.  
 ☎ 450333 (Angel)

**HERRIKO**  
**OSTATUA**  
**Jatetxea**  
*Lagun artean goro-goro egateko leku egokia*  
 © 635290  
**ETXALAR**

**GOXOKI**  
 ARROPA ETA OINETAKOAK  
*Levi's eta Bonaventure bakeroen banatzailea*  
**Uztailaren 15a arteko ESKAINTZA**  
 ▷ 1.000 pezeta merkeago arropa bakeroan  
 ▷ 500 pezeta merkeago kirol oinetakoetan  
 ▷ 1.000 pezeta merkeago helduago txandaletan  
 Kanttonberri ☎ 908.779356 • BERA



**Igantzi**

# Udal hauteskundetan orain dela lau urteko emaitza beretsuak

17an hartuko dituzte karguak zinegotzi berriek

OSKAR TXOPERENA

Herri Taldeak 276 eta EAJk 154 botu atara ondotik, bortz zinegotzi izanen ditu batak eta bi bertzeak Udaltxean (eta ez 4 eta 3, aitzineko aleko erreportaian agertu genuen bezala).

Zerbait aipatzekotan, orain dela lau urteko emaitza berberak izan direla erran behar genuke, orduan 385 eta 158 izan baitziren talde bakoitzak hartutako botoak.

## Dantzari txikiak Lezon

Lezon izan ziren maiatzaren 28an dantzari txikiak, Euskal Jaia edo Dantzari Egunean parte hartzen. Nafarroako dantzetan aritu ziren gehien bat.



Maiatzaren 28ko hauteskondeek ez dute berrikuntza haundirik ekarri Herriko Etxera. Bertzalde, akautzen ari zaie hurrei ikasturtea. Ongi pasatzeko aukera ere izan dute azken asteotan, kanpaldietan ibili baitira. Gogoratu 21ean izanen dela Kalahorrarako irtenaldia eta 23an Haurren Eguna

Artxiboa

Lan ederra egiten ari dira irakasten aritzen diren gazteak.

## Kaltzada bistara

Gartxipitik goiti doaien kaltzada lur azpitik atera nahian ari dira auzolanean. Aski polita gelditzen ari da orain arte agertutakoa

eta hori akautzen denerako bertze zerbait egitea pentsatua dute: herritik Iñarburu gainerraino doaien Gurutz Bide edo 'Via Crucis'eko gurutzeak mol-datzea.

## Dirulaguntza 'Aspace'ri

25.000 pezetako la-

guntza eman dio udalak 'Aspace'ri, Kroazian ezinduekin programa bat aintzineratzen laguntzeko.

## Piszin zainketa

Mikel Arburua eta Maria Josefa eta Mari Carmen Etxeberriaren eskeintza aukeratu du

udalak aurtengo udan piszinak zaintzeko. Beren eskaintza izan da denetan merkeena.

Dagoeneko lanean ditugu, aste honetan irekiko baitira igerilekuak jendearentzat. Eguraldia lagun badugu, bustialdi ederrak hartu beharrak gara.



Irungo errepidea - BERA - Tel. 948-631317

**HARRI NATURALA**

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Érlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujardadoa' Mazioa  
Zahar antzekoa Txoperena

ZINTARRIAK  
ADOKINAK  
ZOLAK

## ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa  
Altzate 28 • BERA

## BOTXO ostatua

Tfnoa: 63 00 52  
Zalain Auzoa, BERA

## GELTOKIAK



**BANATZAILEA**

- Autoen salerosketa
- Berriak eta zaharrak

EZTEGARA 18 - 2.B • BERA



bitxikeriak • opariak • eskulangintza

## IRU BIDE ERRETEGIA

Tfnoa: 637127  
LESAKA



**Arantz**

# Larunbatean osatuko da udal korporazio berria

Jose Ramon Amoros izanen da alkate, Arantzaren Aldek lau zinegotzi lortu baitzituen eta PNVk hiru

**GARBINE ETA ELIXABET**

Asteazken honetan egin dute aitzineko korporaziokoak azken plenoa eta larunbatean, ekainaren 17an, osatuko da Herriko Etxe berria. Jakina denez, Joxe Ramon Amoros, Arantzaren Alde taldeko zerrendaburua izanen da alkate. Beretaldeak 315 botu eskuratu zituen, lau zinegotzi lortuz. PNVk berriz, 205 boturekin hiru zinegotzi eskuratu ditu.

Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan berriz, Herri Batasuna izan zen 163 boturekin. Halere, orain lau urteko hauteskundeekin konparatuz ia 40 botu galdu ditu. Bigarrena, Nafarroako Abertzaleak



536 arantzatarrek eman zuten botua maiatzaren 28an OSKAR

izan ziren, 153rekin eta hirugarrena Eusko Alkartasuna 79rekin.

Igandean, Korpus egunean, haurren jaiantzearekin batera udal korporazio berria aurkeztuko da.

## Bi antzerki talde Iruñean

Nafarroako Gobernuak antolatuta Irubide institutuan ekainaren 2an burututako antzerki lehiaketan Arantzako bi taldek parte hartu zuten. Zaz-

pigarren eta zortzigarren mailako ikasleek 'Gorabehera franko' antzeslana eskeini zuten eta bortzgarren eta seigarrenekoak "Aberratsen kontuak".

*ttipi-flash*

### ◆ Katekesi Eguna

Arantzako berrogeitabi neska-mutiko joan ziren Iruñean ospatutako Nafarroako Katekesi Eguna. Katekistak ere berriekin zituzten.

### ◆ Ikasbidaia Bartzelonara

Arantzako eskolako zazpigarren eta zortzigarren mailakoak Bartzelonara joanen dira ikasbidaian, orain dela bi urte bezalaxe. Abioean joanen dira eta itzulia berriz, trenez egiteko asmoa dute. Ongi pasa!



## ALBERGEA JATETXEA

© 634179  
ARANTZA



## BLANCO ANAIK, S.L.

MARMOL eta GRANITOAK

Sukalde entzimerak • Bainua • Hilerria

BERA - Kanttonberri 4, ☎ 631052  
IRUN-(943) 631084 • LEZO(943) 529390

## J. RAMOS

Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut

© 631342 BERA • © 637172 LESAKA



## ARANTZA

*Obren enkantea*

**Kontratuaren xedea:** "Ur hornidura eta saneamendu sareen berritzeko lanak" eta "Kolektore Nagusia".

**Kontrataren aurrekontua:** 94.592.309 pezeta.

**Behin-behineko fidantza:** Kontrataren %2a.

**Proposamenen aurkezpena:** Herriko Etxeko idazkaritzan.

**Epea:** Ekainaren 16raino.

**PROIEKTUAK, baldintza plegua, etabar...** Herriko Etxeko Idazkaritzan daude.

**Kartazal itxien irekitzea:** Proposamenak aurkezteko epea eta biharamoneko 13.00etan, Herriko Etxean.

Hauxe jakinarazten da orok jakin dezan

Arantz, 1995eko maiatzaren 19a  
Alkatea, Juan M. Almandoz Mitxelena




**Sunbilla**

## 'Anselmo Fuerte' herriko peña Italiako Giroan izan zen

Sunbillako zazpi txirrindulazalek osatzen dute eta Giroan ez ezik, Espainiako Vueltan eta Frantziako Tourrean izaten dira

**IXABEL ETA JOSUNE**

Ekainaren 4an itzuli ziren, hamar egun Italiako txirrindulari itzulian pasatu zuten zazpi sunbildarrak. Txirrindulazale hauek 'Anselmo Fuerte' izeneko peña osatzen dute eta hauek dira: Pako Errandona, Alfredo Fernandez, Pedro Indakoetxea, Jose Ignacio Zubieta, Jose Antonio Arrieta, Joxemiel Zelaieta eta Modesto Garro. Urte aunitz daramazkitez joaten, bai Tourrera, baita Espainiako Itzulira ere eta orain, bi urtez, Italiara. "Pakok 20 urtez urtero urtero joaten da, bi eta orain hiru itzulitara" erran digute. Orain dela hilabete aunitz pentsatu zuten joatea eta Indurain



zela joanen jakinda ere ez ziren desanimatu eta arras ongi pasatu dute, nahiz eta eguraldiak deus ez lagundu, arras txarra egin baitu.

### 2,300 kiloko amoarraina

Mikel Arretxeak 2,300 kiloko amoarraina harrapatu zuen orain dela egun batzuk, arrantzan ari zela. Ongi kostata noski, hasieran hartu eta eskapatu baizitzaion, baina hurrengoan hartu ahal izan zuen. Iturengo errekan hartu omen zuen eta erreka amoarraina omen da.

### Igerilekuko bonoak

Helduendako urteko bonoa 4.000 pezetakoa izanen da, hilabetekoa 3.000 pezetakoa eta egunekoa 400 pezeta. 12tik 18 urte artekoentzat, urtekoa 2.000, hilabetekoa 1.500 eta egunekoa 200. 7tik 12 urte artekoentzat urtekoa 1.000, hilabetekoa 750 eta egunekoa 100 pezeta. Zazpitik beharokoak dohain izanen dute sarrera. Txartelak salgai daude Udaletxeko bulegoan goizeko 9etatik 12,30etara.

### Kotxe istripu larria izan du neska batek

Duela hiru aste, herriko neska gazte batek kotxe istripua izan zuen Legasako erre-

pidean. Istripu honen ondorioz bi zauritu suertatu ziren, Txus herriko neska eta Zu-

bietako mutil bat. Zauriak haundiak badira ere, larritasunetik kanpo daude biak.

ONGI PASATU HERRIKO BESTAK

### DONEZTEBEKO EUSKALTEGIA

*Uda osoan barnetegiak eta abuztuan  
4 orduko ikastaroa (EGA)*

Tfnua: 451555 • San Miguel auzoa • DONEZTEBE

### EKAITZA TABERNA

**Ongi pasatu herriko bestak**

© 450991, Osasun Zentroaren ondoan • DONEZTEBE

### ZURE GORPUTZA ZURE ALTXORRA DA

Aukeratu zure neurria. Hobetu zure figura.

#### Zentru mediko-estetikoa

- Jean Paul Bouchet Doktorea (Faculté de Medicine de Paris)
- Amaya Picabea (Estetikan diplomaturia)


*Behar duzun laguntza eskeintzen dizugu,  
pertsonalizatutako programei esker*

#### GAINERA:

- Aurpegirako tratamenduak azido glikolikoaren bidez
- Depilazio elektrikoa eta argizariarekin
- ZELULA FRESKOEN aplikazioa

**LEHENDABIZIKO KONTSULTA DOHAIN**

### INFORMAZIO GEHIAGORAKO



**Amaya**

Lurrindenda • Apaindegia

Ameztia karrika z/g

© 450163 • DONEZTEBE



Doneztebe

## Ekainaren 30ean 85 urte bete dituztenei omenaldia

Urrezko Ezteiak betetzen dituztenak eta Arkupeak elkartearen bederatzigarren urteurrena ere gogoratuko dira

TXEMA ETA KARMELO

Ekainaren 30ean ospatuko dira Donezteben Urrezko Ezteien besta, lautan hogeita-bortz urte betetzen dituztenei omenaldia eta Arkupeak elkartearen bederatzigarren urteurrena ospatuz eginen den besta.

Herrietako autobusak ailegatu ondotik, goizeko 11ak aldera hasiko da egitaraua, txistulariek eta txarangak herriko karririk zeharkatuko dituztelarik. 12,30etako Meza Nagusia eskolako frontoian izanen da. Mezaren zehar Azpilagaga eta Garmendia bertsolariak eta jaunartzean Amaia Zubiria kantaria eta txistulariek 'Agur Jaunak' kantatuko dute. Meza bukatu ondotik, bertsolariak zein Amaia Zubiriak beraien errepertorioa eskainiko dute. Gero, omenduei sa-



Besten aitzinetik, Korpus egunekoa izanen dugu ospakizun nagusia



TXEMA

riak banatuko zaizkie. Arratsaldeko 3etan bazkaria izanen dute Bordatxo dantzalekuan, eta ez nolana hiko gainera: Arguedas jatetxe modernoak eskainitakoa izanen da Feli Galarreta buru delarik. Menuaren barnean, zizka-mizkak, langostinoak, barazki menestra, koxkera era prestatutako legatza, tarta helatuafekin, txanpaina eta ura, ar-

doak, kafea eta kopa sartzen dira.

Arratsaldeko 5,30etatik 8,30etara dantzaldia izanen da Amalur taldearen eskutik.

Bazkariaren prezioa 3.000 pezetakoa da eta bertan parte hartzeko, ekainaren 19a baino lehen eman beharko da izena Arkupeak elkartearen egoitzan (450144 telefonora deituz).

### Behin-en besta larunbatean

Larunbat honetan ospatuko da Donezteben Behinpin taldeak, COFES zentroa Elizondora ekarri dutela ospatzeko eginen duten besta. Taldeko arduradunek adierazi dutenez, ginekologoa eta erizaina etorriko dira bestan parte hartzera.

### Jubilatuen Ostata

Jubilatuen ostata lan egiten zutenak, gaur bertan (ekainaren 15ean) utzi eginen dute. Ostatuko arduradunek erran digutenez, dagoen martxa tikia eta funtzionamendu kaxkara dira, nonbait, uzteko arrazoiak.

ONGI PASATU HERRIKO BESTAK

## JUAN J. PIKABEA

ARROPA KONFEKZIOAK  
GIZONEZKOENDAKO JOSTUNGINTZA

AMEZTIA Z/G, TFNOA: 45 16 70  
DONEZTEBE

## MAITE ileapaindegia

- SOLARIUM-A
- AZKEN MODELOAK ORRAXKERETAN
- EMAKUMEAK, GIZONAK ETA HAURRAK

Ireki berria, Udaletxearen ondoan  
Merkatarien karrika 7, © 451780 • DONEZTEBE



**Malerreka**

# Iturengo karrikak ia moldatuak eta ura NILSarentzat

Letizia Ariztoi eta Ainhoa Baleztena bikain aritu dira Langarra elkarteak antolatutako Kukumiku lehiaketan

IBAN ISASI

Kaskiedo Zubiaren kalea eta bere inguruetan, baita mutikoen eskolatik eliza bigeko azken etxera arte ere egin dira lan hauek. Lan hauetan losatzea egin dute. Hontaz gain, euri urak, herriko urak eta desagreak sartu dituzte lur azpian. Hau dena Herri Administrazio sailaren laguntzaz egin da. Laguntzatik kanpo geratzen diren kostuak NILSA enpresak ordainduko ditu. Baina enpresa honek trukean, udalak hala emanda urak bere gain hartu ditu. NILSAk gainera, ur kontadoreak jarriko ditu eta enpresa honek kobratuko ditu.



Zenbait moldaketa egin dira Iturengo karriketan

ARTXIBOA

## Iturendarrak bikain Kukumiku lehiaketan

Kukumiku lehiaketa, Langarra taldeak hamabi urtetatik hamalau urtera arteko gaztetxoei zuzenduta-

ko kultur lehiaketa, Aurtizko soziedadean burutu zen maiatzaren 27an. Finalerdietan, Letizia Ariztoi eta

Ainhoa Baleztenak irabazi zuten. Halere, gainerako partaideek ere aitzinera segituko dute.

*ttipi-flash*

### ♦ Garbiketak

Eskolak eta udalategia garbitzeko su-bastaren postua Juani Etxepetelekuk irabazi du. Bi eskaintza izan ziren, baina Juanirena komenigarriena zenez, berak segituko su garbiketa lanekin.

### ♦ Udal gobernuaren kontuak

ikusgai daude Herriko Etxeko idazkaritzan. Hilabete-ko epea dago hauek ikusi nahi dituenarentzat. Udalak 6 edo 7 milioi pezetako superabita daukala aurrera dezakegu.

ONGI PASATU HERRIKO BESTAK

## BAZAR 100

- Inportazio produktuak
- Opariak, etxerako ontziak...
- Landare naturalak eta artifizialak


San Migel, ☎ 450292 • DONEZTEBE

## GURUTZE

- Goxokiak eta eskolako materiala •
- Egunkariak eta aldizkariak •
- Izozkiak •

Nagusia 2 • ☎ 450389 • DONEZTEBE

## Jose Luis San Miguel Tailerra



### STIHL zerbitzu ofiziala

- Bizikletak
- Motoak
- Nekazal tresneria
- Salmenta eta konponketa

Merkatarien karrika 11  
Tfnoa: 450711  
DONEZTEBE





# EUSKALDUNAK,

# BIGARREN MAILAKO NAFARRAK

LEITZA • ULTZAMA • LARRAUN • MALERREKA eta BORTZIRIETAKO EUSKARA ZERBITZUEN ARGITALPENA

**L**eitzako Euskara Batzordearen ekime-  
nez, urte hasieran  
eremu euskaldune-  
ko hainbat elkarte  
eta erakunde bildu ginen,  
azkeneko boladan euska-  
rari egin zaizkion erasoak  
aztertu eta salatze-  
ko asmoz.

Bertan AEK eta IKA  
euskalduntze - alfabetatze  
zerbitzuak, Leitza, Ultza-  
ma, Larraun, Malerreka eta  
Bortzirietako Euskara Zer-  
bitzuak eta Malerrekako  
Langarra Euskara Taldea  
bildu ginen.

Euskarari egin zaizkion  
eraso hauek aztertu ondo-  
ren, erasotzaile nagusiena  
Nafarroako Gobernuak be-  
ra dela ikusi dugu. Hona  
hemen, Nafarroako Go-  
bernuak, sailez sail azter-  
tuta, euskarari egin diz-  
kion hainbat eraso:

## OSASUNBIDEA


Berez, euskaldunok  
mediku eta osasun zentro-  
etako langileekin harreman-  
ak euskaraz izateko es-  
kubidea baldin badugu  
ere, kasu gehienetan hau  
ez da betetzen eta gure  
gaixotasunak erdaraz azal-  
du behar izaten ditugu.

## HEZKUNTZA DEPARTAMENDUA

Gure haurrak euskaraz ikasten ari  
baldin badira ere, sail honetan hainbat  
arazo dago. Esate baterako, Hezkuntza  
Departamentuak eskolekin duen harre-  
mana gehienetan erdaraz izaten da.

## EUSKALTEGIAK

Euskaltegiei eman beharreko dirula-  
guntzak ere guttituz doaz. Gainera,



erabiltzen dituzten irizpideekin, dirula-  
guntza murrizt horiek ez dira igotzen  
ikasle gehiago izanda ere.

## NAFARROAKO GOBERNUKO GAINERAKO DEPARTAMENTUAK

Nafarroako Gobernutik gure herrie-  
tara datozen mendizainak, albaite-  
roak, foruzainak... erdaldunak izan ohi dira.

Horrexegatik, euskaraz  
funtzionatzeko erabakia  
hartu duten Udalek ezin  
izaten dute erabaki hori  
aurrera eramane, Admi-  
nistrazio Nagusiak era-  
gozten duelako.

## UNIBERTSITATEA

Nafarroak euskaraz ikas-  
teko eskubidea badugu  
ere, Nafarroako Unibers-  
titate Publikoan ez dugu  
euskaraz ikasteko aukera-  
rik.

## KOMUNIKABIDEAK

Nafarroako Gobernuak  
euskal irratiei behin eta  
berriz baimena ukatu egin  
die. Bestalde, ETBren  
hartzea ere legalizatu ga-  
be dago eta hori ere, Na-  
farroako Gobernuaren es-  
ku dago.

## ESTATUKO ADMINISTRATIOA

Nafarroako Gobernu-  
ak, nafarron zerbitzurako  
diren funtzionario eta ad-  
ministratio hauek (bake  
epaitegiak, Enplegu  
Bulegoa, posta...) bertako  
hizkuntz legeak bete di-  
tzaten lan egin beharko  
luke.

## ONDORIOAK

Legeak dioenez, eus-  
kaldunok gure administratioarekin  
euskaraz aritzeko eskubidea dugu.  
Halere, gure eguneroko bizitzan bere-  
hala ikusten dugu hori ezinezkoa dela.

Horregatik, hau guzia ikusirik, EUS-  
KALDUNAK BIGARREN MAILAKO NA-  
FARRAK garelako ondorioztatzen dugu.



**B**eraz, euskararen inguruko arazo hauek aztertu ondotik, jendeari gure kezka aditzera eman behar geniola erabaki genuen eta «**EUSKALDUNAK BIGARREN MAILAKO NAFARRAK**» kanpaina martxan jarri genuen. Horretarako, gure

salaketaren punturik garrantzitsuenak kartel eta irratik-kuñen bidez adierazi genituen. Modu berean, prentsara ere hainbat artikulua bidali genuen. Gizartearen erantzuna biltzeko, elkarte, ikastetxe eta erakunde hauen sinadurak bildu genituen:

## BAZTAN

AEK

Baztandarren Biltzarra

Baztango Herri Eskoletako Irakasleak

Baztango Ikastolako Irakasle klustroa

Irakasleen Laguntza Zentroa

Lekarozko Institutuko klustroa

Xorroxin Irratia

## BORTZIRIAK

Agerra Mendi Taldea

Altxata Kultur Elkartea

Amnistiaren Aldeko Batzordeak

Andre Mariaren Zeruratze Parrokia

Arantzako Eskola Publikoa

Arkupe Pilotazaleen Elkartea

Arrano Elkartea

Batzoki Elkartea

Berako Musika Banda

Beti Gazte Elkartea

Bortzirietako Elkarri

Bortzirietako Euskaltegia - IKA

Bortzirietako Euskara Batzordeak

Bortzirietako Euskara Mankomunidadea

Bortzirietako Herri Batasuna

CCOO

CSI lantegiko komitea

Eusko Alderdi Jeltzalea (PNV)

Eusko Alkartasuna

Etxalarko Eskola Publikoa

Etxalarko E.P.ko Guraso Elkartea

ESK-CUIS

Gure Txokoa Elkartea

Igantzikoko Biltoki Elkartea

Igantzikoko Eskola Publikoa

Irain E.P.ko Irakasle klustroa

Irain E.P.ko Guraso Elkartea

LAB

Labiaga Ikastola



ZERTAN  
EZIN BARDU  
ERAE



Labiaga Ikastolako Guraso Elkartea  
 Larun Mendi Taldea  
 Lamizilo Kultur Elkartea  
 Lesakako Abesbatza  
 Lesakako Musika Banda  
 Lesakako Udal Musika Eskola  
 Matxinbeltzenea  
 Matxinbeltzenea Barnetegia  
 Migel Goiangerua Parrokia  
 Peña Plata Jostunen Elkartea  
 Ricardo Baroja Eskola Publikoa  
 Ricardo Baroja E.P.ko Guraso Elkartea  
 San Martin Parrokia  
 San Fermin Jubilatua eta Pentsionisten Elkartea  
 Sindicato Comarcal del Metal  
 Tantirumairu Ikastola  
 Tantirumairu Ikastolako Guraso Elkartea  
 Ttipi-ttapa Aldizkaria  
 Usoa Ehiztari Elkartea  
 Usoa Nekazari Kooperatiba  
 Uxua Emakume Taldea  
 Zizkuitz Txaranga

## LARRAUN ARAITZ-BETELU

AEK Betelu-Araizko Euskaltegia  
 Araizko Udala  
 Araxes Eskola Publikoa  
 Beteluko Udala  
 Kattagorri Elkartea  
 Larraungo Eskola  
 Larraungo Udala  
 Lekunberriko Kontseilua  
 Mailope Aldizkaria  
 Oihuka Kultur Taldea  
 Plazaola Kontsortzioa  
 Ttutture Kirol Elkartea

## LEITZALDEA

Aizan Kirol Elkartea  
 Amnistiaren Aldeko Batzordeak  
 Aresoko E.P.ko Guraso Elkartea  
 Aresoko Herritarren Elkartea  
 Aresoko Kultur Taldea  
 Aresoko Parrokia  
 Aresoko Sokatira Taldea  
 Aurrera Kirol Elkartea  
 Aurrera Futbol Taldea  
 Bake Epaitegia  
 E.G. Orain  
 ELA  
 Elkarri  
 Eskualdeko Eskola Publikoa  
 Euskal Dantzari Taldea

Euskal Kultur Taldea  
 Euskara Zerbitzua  
 Eusko Alkartasuna  
 G.I.A. (Aresoarrak)  
 Goizuetako Udala  
 Goizuetako E.P.ko Guraso Elkartea  
 Gurutze Mendi S.D.C.R.  
 Herri Batasuna  
 IKA  
 LAB  
 Larrea Elkartea  
 Leiza-Goizueta-Arano eta Aresoko  
 Oinarrizko Gizarte Zerbitzua  
 Leitzako Haurtzaindegia  
 Leitzako Lanbide Eskolako klaustroa  
 Leitzako Osasun Zentroa  
 Leitzako Udala  
 Mendigorria Elkartea  
 Nekazal Ganbara  
 Okile Ezinduen Elkartea  
 Okile Tailerreko partaideak  
 Pake-toki Elkartea  
 Umore Ona Elkartea

## MALERREKA

Behinpin Kultur Taldea  
 Beintza-Labaien eta Saldiasoko Parrokiak  
 Doneztebeko E.P.ko Guraso Elkartea  
 Doneztebeko E.P.ko Zuzendaritza Taldea  
 DYA  
 Eratsungo Eskola  
 Herri Batasuna  
 Ibintza Elkartea  
 IKA  
 Iturengo Eskola  
 Langarra Euskara Taldea  
 Legasako Eskola  
 Legasako Kontzejua  
 Malerrekako Mankomunitatea  
 Narbarteko Eskola  
 Narbarteko Kontzejua  
 Oieregiko Parrokia  
 Saldiasoko Eskola  
 Sunbillako Parrokia  
 Sunbillako Udala  
 Zubietako Eskola  
 Zubietako Udala  
 Zurkaitza Kultur Taldea

## ULTZAMALDEA

AEK  
 Basaburuako Alkatetza  
 CCOO  
 Danoneko Komitea  
 Imotzeko Alkatetza  
 Irkaitz Gazte Taldea  
 Pulunpe Aldizkaria  
 Sustriaiak (Eskoletako Guraso Elkartea)  
 Tuxuri Gazte Taldea

AKO  
 ?



# Euskaldunak, bigarren mailako nafarrak ote?

*Beti euskararen alde gaudela diogu. Gazteon artean beti euskaraz hitzegiteko garaia da.*

*Beti euskararen alde daudela diote agintariak. Behar bezalako neurriak indarrean jar ditzaten garaia da.*



**GORKA URBIZU**


LEKUNBERRIKOA

'NAHI TA NAHI EZ' ROCK TALDEKOA

*Nafarroan jende euskaldun asko dago, Tuteratik Zugarramurdiraino euskaraz bizi nahi duena, eta noski, hau errespetatu behar litzateke.*

*Nafarroako Gobernuak ez du hau onartzen eta horregatik ez du laguntzarik ematen. Beraz, hau da nire eritzia:*

*Nafarroako Gobernuaren erruz Nafarroan euskara galtzen doa.*



**ITZIAR BAKERO**

GOIZUETARRA

AÑORGA FUTBOL TALDEKO FUTBOLARIA



*Nafar administrazioak euskararekin daraman jokabidea salatu nahi dut, irakaskuntzan bereziki. Gure seme-ala-bek F.P.ko ikasketak euskaraz burutu ahal izatea nahi dugu, baina ezinezkoa zaigu ez baitago ikastetxerik ezta irakasle euskaldunik ere. Legeak, behin eta berriro eskubide berdinarak ditugula aitortzen badigu*

*ere, errealitatea oso bestelakoa da. Ez dugu aukerarik eta derrigorrez endaraz ikasten segitu beharrean aurkitzen gara. Non daude, hainbat aldiz erraten diguten eskubide berdinarak?*

**LURDES ARANGOA AGIRRE**

EUSKALDUNBERRIA. ULTZAMALDEKO POSTARIA



*Argitu beharra dago hauek euskararen erabileraren arazo batzuk baino ez direla, eta berez gertatzen dena ez da 'eskualde jokua', gure bizimodua, hizkuntza eta kulturari egiten zaion eraso larria baizik. Gehiegi al da aukerak eskatzea, inposaketan ordez?*

*Hain bitxia da, euskaldunak izaki, euskaraz elkar ulertu nahi izatea?. Ez al da erreparatzeko modukoa?*

**BLANKA BERTIZ**

NARBARTEKOA

MERKATARIA



**Malerreka**

# Saldiasko San Juanak, ekainaren 23tik 26ra

San Juan eguneko mezaren ondotik aizkol apustua burutuko da

**TTIPI-TTAPA**

San Juan bezperan, ostiralean, hasiko dira urtero bezala Saldiasko San Juan festak. Oraindik egitaraua guztiz zehaztu gabe badago ere, gutxi gora behera ekitaldi hauek ospatuko dira.

Arratseko 8etan altxaferua botako da festei hasiera emanez. 10etan San Juan suak piztuko dira eta ondoren afaria eta musika izanen da.

San Juan egunean, 10etan diana txistulariekin. 12etan Meza Nagusia eta ondoren aizkol apustua. 5etan pilota partiduak eta arratsean musika.

Ekainaren 25ean, igandea, diana trikiti-xarekin izango da.



**Gaztagintza ikastaroa eman da zazpi egunez Doneztebeko Juansenean. Artzai-Gaztako Jose Antonio Otxandorena izan dute irakasle eta behi eta ardi gaztari buruz aritu dira**

Karmele

12etako meza ondoren dantzariak arituko dira eta mus txapelketa. Arratsaldeko 4,30etan umeen jokoak izanen dira. Ondoren pilota

partiduak eta akitzeko, egunero bezala, musika. Astelehenean, ekainak 26, izanen da azken eguna. Goizean, trikitalarien eskutik dia-

na izanen da. Ondoren, plater tiraketa herrikoentzat. 2etan herri bazkaria izanen da eta beste akabera emateko, musika.

## Zubietako historiari buruzko liburua plazaratua

**AINHOA MUTUBERRIA**

Norbaiti interesatzen bazaio gure herriko historia, liburu-dendatan bada liburu bat, 1931tik 1936ra pasatu ziren gauzak kontatzen dituena. Zubietako jendea nola bizi zen Errepublikak eta Gerra Zibilaren garaian erakusten digu. Oso liburu interesgarria da.

Hauteskundeei dagokienez, Nafarroako Parlamenturako HB izan zen indar nagusia, 64 boturekin. Bigarrena EA izan zen 37rekin. Herriko Etxerako botuetan, Herri Taldeak 135 botu jaso zituen.

Uda datorkigu eta etxeari hautsak kentzen hasi beharko dugu, kanpoko bisita guztiei ongietorri on bat emateko.

ONGI PASATU HERRIKO BESTAK

**INES MARI**

**ILEAPAINDEGIA**

Amezitia • © 450163  
DONEZTEBE

TINTEAK  
ILE-KIXKURTZEAK  
APAINKETAK

Ilearendako  
produktu bereziak

**ELKAR**  
asesoria

Nagusia 22 - Tel.Faxa: 451610 • DONEZTEBE

**AHOLKULARITZA**

- Kontablea
- Fiskala
- Laborala
- Aseguruak

**MRW**

**HIRI ARTEKO, ESTATU BARNEKO eta NAZIOARTEKO BIDALKETAK**

Paketeak eta dokumentuak bidaltzeko modurik azkarrena

- **GARRAIO URGENTEA:** Estatu guztian goizeko 10ak baino lehen entregatuko dugu.
- **24 ORDUKO ZERBITZUA:** Arratsaldeko 6ak arte entregatuko dugu

ZERBITZU GARANTIZATUA

Martin Urrutia Etorbidea z/g • ORONOZ MUGAIRI  
Tfnoa eta Faxa: 592179

**FUNERARIA ZERBITZUAK**

**DONEZTEBEN**



**MALDAERREKA, S.L.**

24 ordutako zerbitzua  
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak  
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA  
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE



Goizueta

## Zokoz-zoko Jose Jabier Etxeberriarekin

Patxi Zabalak, bestalde, Euskal Herriko Haur Kantari txapelketaren finalean arituko da larunbatean, hilaren 17an

ESTEBAN AROZENA

Goizuetako ola edo ola zaharren berri ematen zuen saioarekin bukatu zen orain dela aste pare bat, lau ostiraletan zehar eta 'Zokomira' izenburupean Jose Jabier Etxeberriak eskeini duen diapositiba emanaldien zikloa.

Herriko historiaren berri eman zuen Jose Jabierrek lehenengo egunean, hemengo etxeen eraikuntza mota ezberdinek eta bertako zerbitzu eta ofizioak -joaregileak, arotzak...- aztertu zituelarik hurrengo bietan. Aipagarria da jendearen erantzuna, batzuek beste 50 lagun inguru



Larunbatean Basaurin ospatuko den Euskal Herriko Haur Kantari txapelketan Patxi Zabalak parte hartuko du bakarlari txikien multzoan, Nafarroako lehiaketa irabaztearekin eskuratu baitzuen horretarako txartela. Irune arreba trikitixarekin lagun duela, 'Anbotoko sorgiña' kantua plazaratuko du.

bildu baita saio bakoitzera. Dena den, esan behar da, gaztek

eta hurrek osatu dutela multzorik haundiena, helduei dago-

kienez hutsune bat narbitu delarik. Halere, oso pozik agertzen zen

Etxeberria partaidetza honekin.

Afrikan denboraldi luzeak igarota orain gure artean daukagun 39 urteko mediku hau argazkizale amorratua izan da beti, eta ezaguna da besteak beste Ruandako egoera erakusten zuen diapositiba sorta hunkigarri hura. Hemendik aurrera ere ez da geldirik egon asmotan Etxeberria, dagoeneko eskuratuak dituen hainbat datu aprobetxatuz herriko historia ikertzen eta aztertzen jarraitzeko asmoa baitu, gazte eta haurrentzako gai honi buruzko lehiaketa bat antolatzeaz gain.

Areso

## Juan Cruz apaiza Ekuadorrera doa misioetara berriro

Bertara eramateko diru bilketa egiten ari da herrian

JUANA M<sup>a</sup> SAIZAR

Urte honetan igandero meza ematera etorri zaigun apaiza Juan Cruz, badoa berriz Ekuadorrera misioetara. Hamaika urte hauek lan eginduan Chichos-en, 9.000 biztanleko hiri batean eta hiruetatik bat indigena da. Orain berriz itzultzen da Chuchilan eta Isinlibira. Eskerrak eman nahian, Junta



Pastoralak diru bilketa bat antolatu du herriko famili guztiei eskutitz bat bidaliz eta borondatea eskatuz. Dirua Juan Cruzek bere misio lurraldetara

eramateko erabiliko da. Hemengo diruak han asko balio baitu eta probetxu handia atera dezaioke.

### Kurtso bukaerako eskurtsioak

Kurtso bukaera hurbiltzen ari da eta umeak eskurtsioak egiten hasiak dira. Txikiak Hondarribiara bi egunetarako joan dira eta haundiak mendi bizikletan trabesia bat egin dute eta Gaztelura ibilaldia mendiz mendi.

Leire Baraibar aresoarra laugarren postua eskuratu zuen Euskadiko jabalina jaurtiketa txapelketan, kadete mailan.



Leiza

# 'Tresna eta ohitura zaharrak' erakusketa ekaina eta uztailan

Egun hauetan Juan Migel Apezetxea presoa eta ekainaren 18an, berriz, "Incansables" txaranga omenduko dira

JOSEBA AZPIROZ

Kultur Taldeak eta Aurrera elkarteak 'Tresna eta Ohitura zaharrak' erakusketa antolatu dute. Ekainaren 18tik uztailaren 9a arte ikusi ahal izanen dugu Amazabal pilotalekuan, goizez 11,30etatik 1,30etara eta arratsaldez 4etatik 8etara. Erakusketako tresnak (1.000 inguru) gaika sailatuko dituzte, hau da, garai bateko zurgintza taillerak, logelak, sukaldeak, etabar... nola-koak ziren erakusten saiatuko dira. 55 baserrietatik, 20-25 herriko etxetatik eta udalletxetik jasotako tresna bakoitzak, bere ize-na eta erabilgarritasuna argituko digun fitxa bat izango du.

## KULTUR EKITALDIAK

Erakusketa honen inguruan beste zenbait kultur ekitaldi antolatu dituzte. Ekainan burutuko direnak honako hauek izanen dira: 22an, 8etan, Solstizioari buruzko hitzaldia. 23an, San Juan bezpera, 6etan umeen Ingurutxo eta txistor jatea, 9etan herri aparta eta ondoren 'Sagu,



Elkarriren Leitzako tailerrekoek ekainaren 2an komunikabideei eskeinitako prentsaurrekoan "Bakerako borondateen kontratua" kanpainaren aurkezpena egin zuten. Konpromezu kolektibo bat ezartzen duen gizarte-akordioaren aldeko 40-50 leitzarren sinadurak lortzen saiatuko dira. Sinatzen diren borondateen bilduma, gatazkako eragile guztiei aurkeztuko zaie, bakearen aldeko elkarrizketa prozesu bat bultzatzeko oinarrizko proposamen gisa.

Argazkia: Joseba

Sator eta Satitxus Band' herriko folk taldea eta '4kitik ihes' taldeen emanaldiak. 25ean, igandea, eguerdiko 12etan: segalariak, laiariak, lixua eta plantxa, sagardo egitea, etab... Egun osoan zehar arropa zaharren erakusketa. 30ean, ostirala, 8etan herri kirolari buruzko hitzaldia. Egun hauetan zehar erakusketa desberdinak izanen dira: armarriak, argazkiak, jubilatuen lanak...

## Apezetxea eta Incansables-i omenaldia

Leitzako Amnistia-aren aldeko batzordeak Juan Migel Apezetxea, Goizuetako preso politikoa omenez zenbait ekitaldi antolatu ditu. Ekainaren 9an, 'Azken 15 urte haue-tako errepresioari' buruzko hitzaldia izan zen. Ekainaren 11tik 17ra eskulanean erakusketa eta salmenta izango dira Udaletxean. Astez, 7etatik 9ak arte egonen da ikusgai

eta astebukaeran, 12etatik ordu biak arte. Azken ekitaldia 17an Burgoseko espetxera eginen den martxa izanen da. Aurten betetzen dira 15 urte Apezetxea espetxeratu zutenetik.

Bestalde, kaineren 18an, igandea, bere musika eta umorearekin Leitzako hainbat festa egun alaitu dituzten 'Incansables' txaranga partaideak


omenduko dira. Goizeko 9etan dianarekin emango zaio hasera omenaldiari, 10etan Meza Nagusia izango da, 12etan, berriz, herri kirolak eta 2,30etan bazkaria. Arratsaldeko 6etan eta 8etan dantzaldia trikitilari eta akordeolariekin.

Aurten hogeita-bostgarren urteurrena betetzen du txaranga honek.

ttipi-flash

## ♦ Ttanttoka emakume taldea

Sortu berria den talde honek autoestimaz bi saio antolatu ditu. Lehena, 'Shirley Valentina' filmaren proiektzioa aurreko ostira-lean burutu zen. Bigarrena, ostiralean, hilaren 16an, arratsaldeko 7etan, Aurreran burutuko da Izargain taldearen eskutik eta aipatutako filmaren inguruan izanen da.



**SOULE**

**GURUTZE eta HILARRIAK**

☎ 45 30 38 ARIZKUN • ☎ 12 35 72 IRUÑA



**Baztan**

# Langile bat hilik Almandozen garbiketa lanetan ari zela

Ekainaren 9an gertatutako ezbeharrean, biga batek zanpatu zuen 30 urteko gasteiztar bat

JOSEBA ETA PABLO

Mariezkurrena enpresarako lanean ari zen langile bat hil eta bertze bat zauritua izan zen ekainaren 7an Almandozen, Astizelai baserriaren parean gertatutako istripuan. Marín zubiaren ondoan egiteñ ari diren zubi-ko htabe bat kamioiez ekartzen ari zirenean, mugitu egin zen eta bi traktore zapaldu zituen. Ondorioz, traktore bateko gidaria hil zen eta bertzekoa zauritu, honek arriskua ikusi eta salto egin baitzuen. Carlos Lopez Sousa 30 urteko gasteiztarra da hildakoa eta Jose M<sup>a</sup> Organbide Beartzundarrak salto egin ahal izan zuen.

## Kanpoko nafarren eguna

Kanpoan bizi diren nafarren eguna ospatu zen ekainaren 3an. Goizean txistulariak eta Meza Nagusiaren ondotik pilota eta ar-



Elizondon aurten Konfirmazioa egin duten gazteak

gazki erakusketa eta dantzariak aritu ziren. Bazkalondoan, abesbatza aritu zen eta frontoian herri kirolak, Perurena, Bikondoa eta lasto altxatze exhibizioak. Ondoren, Gatzela eta Aragoiko dantzariak aritu ziren. Juan Cruz Alli, Miguel Sanz eta Alfredo Jaime bezalako pertsonalitateak bertan izan ziren.

## Medikuaren Etxean kokatuko dira zenbait elkarte

Medikuaren Etxea Baztango zenbait talderen egoitza izanen da, egiten ari diren lanen ondotik. Hau dela eta, Udalak dagoneko banaketa eginga du.

Honela, beheko solairua haurtzaindegirako erabiliko da.

Lehendabiziko solairuan berriz, Baztango pilota eskolaren bulegoa, Baztango mendigoizaleen bulegoa, txirrindulari taldearen bulegoa eta Xorroxin irriatiak emititzeko eta produkzio lanak egiteko beharrezko duen gelak kokatuko dira.

*ttipi-flash*

### ❖ Gaztanberaren kofradiaren

eguna ospatuko da ekainaren 18an. Ongietorria emanen zaie bertze kofradietako kideei eta mezaren ondotik, kofrade berrien izendapena egingen da.

### ❖ Oronozko

plaza igandean inauguratu dute.

### ❖ Trinitate Eguna

Aritzakun eta Elizondoko Santa Engrazian ere ospatu da igande honetan.

### ❖ Ikasturte bukaerako

besta ospatu zuen ikastolak sekulako giroan. 600 lagun elkartu ziren bazkaltzen eta momentu hunkigarriak izan ziren, batez ere ikastolako bultzatzaile, guraso eta ikasle ohiak gogoratzerakoan.

ONGI PASATU HERRIKO BESTAK



ALTZA ERREKA JATETXEA

**erretegia**

*Besta zoriontsuak izan*

Izpegiko bidea  
Tfnoa: 453094  
**ERRATZU**



**Ostatua**

Herriko Plaza • ☎ 453118 • ERRATZU

**BEREKO BENTA**

**ostatu • janaridenda • oroigarriak**

Izpegi • ☎ 453207 • ERRATZU

**ERRATZU**  
**OKINDEGIA**

*zure eguneroko*  
*osia*

☎ 453168  
**ERRATZU**



# Almandozko bestak hasiak dira, Arizkun eta Erratzukoak hastear

## ARIZKUN

### Ekainak 23, ortzilerie:

12etan txupinazoa eta txopogoratzea. 1etan sekulako desafioa. 6etan herriko pilota txapelketaren finala. Ilunabarrean suak, ezkil jotzea era sorgina. 10etan baztan zopak eta gauerditik aitzinera 'Elurte' taldea. 5etan ziztor jatea.

### Ekainak 24, larunbata:

6etan ezkil jotzea. 9etan dianak. 11etan Meza Nagusia. 12etan mutil dantzak. 1etan bertsolariak. 5etan Lesakako dantza taldea. Arratsalde eta gaez 'Izadi' taldea. 10etan mutil dantzak. 5etan zingar jatea.

### Ekainak 25, igandea Haurren Eguna;

9etan diana. 9,30etan Gymkana. 1,30etan haurren bazkaria. 3,30etan pilota partiduak. 5etan txokolatada. 6etan herriko plater tiraketa. Arratdalde eta gaez dantzaldia 'Iratxo' taldearekin. 10etan kantaldia Pottokaren eskutik. 5etan gasna jatea.

### Ekainak 26, astelehena:

Goizean diana eta mus txapelketa. 2etan zikiro jatea. 6etan asto laisterketa. Arratsean 'Iñazki' taldea.



Almandozko neska-mutil gazteak ederki pasatzen ari dira herriko bestetan. Arizkungo Sanjuanak eta Erratzuko Sanpedroak berriz, hasteko puntuan daude

## Hainbat ekitaldi Almandozen asteburuari begira

Asteazkenean altxaferoa bota ondotik almandoztarrak bete betean sartuak daude herriko bestetan. Ortzegunean, hilak 15, **Besta Berri Eguna** ospatuko dute. 12etan meza nagusia eta 1etan hameketakoa. 8,30etatik 9,30etara dantzaldia. 9,30etan dantza txapelketa eta ondotik afari herrikoia eta MODESTOrekin dantzaldia.

**Ortzirala 16.** 7etan gautxorien gosaria. 11etan mus txapelketa herriko ostatueta. 2,30etan zikiro jatea pilotalekuan Modestok alaitua. 8,30etatik 10,30etara eta 1etatik 4etara dantzaldia OSKIA taldearekin.

**Larunbata 17,** 11etan haur jokoak. 12,30etan plater tiraketa. 5etan txokolatada haurrentzat. 8,30etatik 10,30etara

eta 1etatik 5etara dantzaldia KAIXO taldearekin

**Igandea 18,** 12,30etan Baztango dantzariak. 6etan herri kirol ikuskizuna: Proba konbinatua, txingak eta harri probak. Arratsaldez eta gaez dantzaldia KAI-XO taldearekin. Ondotik 'Gaixoa ni' bizirik jarraitzen dutenentzat. Asteburu ongi pasatzeko aukera ederra.

## ERRATZU

### Ekainak 28, asteazkena:

8etan ezkil jotzea. Kalejira akordeolari eta txistulariekin. 9,30etan Baztan zopak akordiolariekin Albantzenean.

### Ekainak 29, ortzeguna:

10etan diana. 11etan Meza Nagusia. 12etan herriko dantzari ttikiak. Herriko Ostatuan hameketakoa. 4etan txirrindulariak: Izpegira erlojuaren kontrako proba. 6etan pilota partiduak. 8etan bertsolariak herriko plazan: Aroza eta Murua. Dantzaldia Paraisorekin.

### Ekainak 30, ortzilerie:

10etan diana. 12etan pilota partiduak Gorostapolon. 2etan zikiro jatea. Arratsalde eta gaez Joxe Angel. 10etan Panpi Portugal Iparla ostatuan.

### Uztailak 1, larunbata:

11,30etan crossa. Egun guztian haurrendako ikuskizunak. 5etan txirrindulari ttikiak eta pilota partiduak. Txokolatada Zubipuntan. 7etan mus txapelketaren finala Albantzenean. Dantzaldia Paraiso. 10,30etan Erramun Martikorena eta afaria

### Uztailak 2, igandea:

10etan diana. 6etan herri kirolak. Dantzaldia Paraiso taldearekin. 10,30etan zarearen zozketa eta rock kontzertua Zubipuntan. 5etan 'Pobre de mi'.

ONGI PASATU HERRIKO BESTAK

## IPARLA OSTATUA

- Egunero bokata eta pintxo beroak
- Igandetan salda

Aduana k. • ☎ 453153 • ERRATZU

## ALBANTZENA OSTATU-DENDA

Asteburuetan sandwichak, bokatak, pintxoak eta patata bixiak (brabak)...

Albantzena etxea • ☎ 453112 • ERRATZU

## ETXEBERRIA

ostatua • jatetxea • denda

Besta on batzuk pasa

☎ 453013 • ARIZKUN

## TABERNA ETXEA

Besta zoriontsuak opa dizkie Almandoz, Arizkun eta Erratzuarrei

Merkatarien karrika 12, ☎ 450007 - DONEZTEBE



Sara

## Andorrrarat gan ziren Herriko Etxeko mus lehiaketako irabazleak

Michel Etxeberri eta Jean Marc Aspirot izan dira aurtengo irabazleak, finala Peio Etxebeste eta Michel Pradereri irabaziz

MIXEL ETA JACQUELINE

### Gazteriak Euskal Herrian bizi nahi du

Ekainaren 3an "Gazteriak Euskal Herrian bizi nahi du" elkarteak antolatutako gauak gaitzeko errekista erdietsi du Heletan, "bozka dezagun abertzale" lemapean. Lau mila bat gazte bildu zen Skunk, Dut eta Negu Gorriak rock taldeen kontzertuaren segitzeko, mitinaren entzuteko eta denbora berean horien kezken entzunarazteko.

Orain hauek itxaroten dute hautetsiek dei haueri oihartzun egoki eta baikor bat emanen diotela.



Herriko Etxeko Edantegiko mus txapelketaren irabazleak lagun talde batekin joan zen Andorrrarat

Herriko Etxeko Edantegiko mus lehiaketa martxoaren 11an bururatu zen.

Finala eguerdi irian jokatu zen Michel Etxeberri - Jean Marc As-

pirot eta Peio Etxebeste - Michel Praderen artean. Lehen bikoteak eraman zuen beraz xapela, hiru eta bi irabaziz. Erran litaike finala hau usozale-

en artean jokatu zela, ikusiz muslariak Gaztainlepo eta Nabarlatselako ordezkariak zirela. Txapeldunek irabazi sariaren baliatze-ko parada ukan zuten

maiatzaren 20 eta 21eko asteburuan, Andorrrarat egin zuten ateraldiaren bitartez. Lagun talde batekin joan ziren eta ongi pasatu omen zuten

Santiago 71, ☎ 580166

**TALLERES ZALDAIN**  
Toldoen instalazioa

ELIZONDO

**ARMUA**  
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km  
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI

**Esker Onak**  
**Urtemugak**  
**Eskelak**

Familiakoren bat edo lagunaren bat hiltzen bazaizu

**ttipi-ttapak**

eskelak, urteurrenak edo esker onak agertzeko toki bat eskeintzen dizu.

Deitu gure telefonora:

☎ 63 11 88

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

**ANZABAL**  
AGENZIA

- **Zurich Aseguruak**
  - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
  - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
  - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
  - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
  - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxa: 580804 - ELIZONDO



Urdazubi

## Herriko bestak umore eta giro ederrean gan zaizkigu

Maiatzaren 26an, lezeen argi eta soinu ekipamendu berria estreinatu zuten

ALIZIA OLAIZOLA

Aurten aldaketa batzuk izan dira herrietako bestetan. Ortziralean, argi eta soinuaren inaugurazioa. Herriarrek lezeak dohainik ikusteko aukera izan zuten eta eguerditan aperitiboa. Egun hontan kanpotar aunitz ere etorri zen lezetar. Biharamonean, 27an, larunbata, arratsaldeko 2 orenetan zikiro jatea izan zen aspaldiko partez, azken urteotan arratsean egiten baitzen. Denetara 200 lagun bildu ziren. Giro polita montatu zen eta ondotik dantzaldia, Zugarramur-



Lezeen argi eta soinu berriak estreinatu dira

Artxiboa

diko Joxe Angel Olaizola eta bere semea Juan Miguel izan ziren zikiro erretzaile-

ak eta oso ongi presaturik. Azken egunean, meza nagusia Ainhoako Atsulai ko-

ruaren laguntzarekin izan zen. Arratsean bukatu ziren bestak. Bestetako errifaren za-

ti nagusia, aste bateko bidaia bi lagunentzat Portugalera, Azpilkuetako gazte bati tokatu zitzaion, 12.273 zenbakian, Zubiartean saldua. Bigarren saria, lau afari herriko jatetxe batean, 9.627 zenbakian eta Pello bentan saldua da. Hirugarrena, kaja sorpresa haundi bat, 1.726 zenbakian, Beatriz Maskotenak saldua du. Bi azkeneko sarien jabeak oraindik ez dira ezagutzen.

❖ **Jantzigintza** ikastaroa bukatu zen maiatzaren 18an. Ongi bukatzeko afaria egin zuten denen artean.

Zugarramurdi

## Dena prest dago ekainaren 24ko Akelarre-gaupasarako

Denetara ehun eta hogeita langile izanen dira, turno ezberdinetan banatuak

KORO ETA MARGARI

Gaurgero ia dena prest dago ekainaren 24an Akelarre-gaupasa egiteko. Besta hontan lan egiteko herriko jendeari laguntza eskatzen zaio eta aitzinetik etxetik etxera joaten da lan egin nahi dutenen izenak hartzeko. Aurten denetara 120 bat langile dira eta baikoitzaren turno ezberdinetan banatuak. Norbaitek arazoren bat baldin badu, suer-



Maitane Ainzartek bakar bakarrik egin zuten lehendabiziko jaunartzea

tatu zaionarekin saia dadila bertze batekin konpontzen eta gero jakinaraz dezala Iñaki edo Franziskori.

### Lehen jaunartzea

Ekainaren 4an Meza Nagusian Maitane Ainzartek bere lehendabiziko Jaunartzea egin zuen. Gan den urtean hiru haur bazi- ren ere, aurten bat bakar- ra ginuen eta martxa honetan izanen dira bakar batek ere egi- nen ez duen urteak.



## EZKONTZAK

**Juan Tomas Fagoaga Lopez** eta **M<sup>a</sup> Dolores Moreno Gamas**, Alkaiaga eta Berakoa, maiatzaren 27an.

**Jesus Roberto Suarez Sanchez** eta **M<sup>a</sup> Milagros del Moral Ariztegi**, Canarias eta Elizondokoa, ekainaren 3an.

**Junkal Larretxea** eta **Jose Luis Iribarren**, Arantza eta Urrotzkoa, martxoaren 25ean.

**Mikel Maia** eta **Sagrario Eizagirre**, Sunbillakoak, ekainaren 3an.

## JAIOTZAK

**Tom Frederic Atra**, Sarakoa, maiatzaren 22an.

**Urki Kortadi Markez**, Legasakoa, maiatzaren 21an.

**Jaione Etxeba Sanz**, Berakoa, maiatzaren 24an.

**Argoitz Pikabea Agerre**, Almandozkoa, maiatzaren 18an.

**Joseba Agirre Gortari**, Arizkungoa, maiatzaren 20an.

**Manex Mitxelena Otxandorena**, Iruritakoa, maiatzaren 24an.

**Altaï Lusarreta Barea**, Elizondokoa, maiatzaren 20an.

**Garazi Conde Orube**, Lesakakoa, maiatzaren 24an.

**Xabier Olazar Mariezkurrena**, Elgorriagakoa, maiatzaren 26an.

## HERIOTZAK

**Juan Joxe Gorosurreta**, Sarakoa, maiatzaren 24an, 55 urte.

**George Bellin**, Sarakoa, maiatzaren 24an, 76 urte.

**Josette Laskuba**, Sarakoa, maiatzaren 27an, 72 urte.

**Rosa Etxeberria Indaburu**, Etxalarkoa, eriaroaren 2an, 90 urte.

**Gabriela Indaburu Zubieta**, Etxalarkoa, eriaroaren 3an, 89 urte.

**Gregorio Urrutia Goñi**, Elizondokoa, maiatzaren 31n, 66 urte.

**Sabina Sanzberro Iriarte**, Elizondokoa, ekainaren 3an, 91 urte.

**Julio Arizaleta Azkarraga**, Azpilkuetakoa, apirilaren 10ean, 67 urte.

**Felicia Irigoien Danboriarena**, Igantzikoa, maiatzaren 21ean, 81 urte.

**Juanito Ariztegi Barber**, Arantzakoa, maiatzaren 1ean, 67 urte.

**Teresa Petrarena Etxebeste**, Arantzakoa, maiatzaren 30ean, 70 urte.

**Andres Zabaleta Zestau**, Leitzakoa, maiatzaren 28an, 85 urte.

**M<sup>a</sup> Francisca Perurena Arribillaga**, Leitzakoa, ekainaren 2an, 93 urte.



**JATETXEA**

☎ 589297

Pedro Axular  
ELIZONDO

**Santxotena**



*Esker Onak • Urtemugak • Eskelak*

**ttipi-ttapak**

eskelak, urteurrenak edo esker onak  
agertzeko toki bat eskeintzen ditu.

Deitu gure telefonora: ☎ **63 11 88**

**ARLA**  
**ARDOTEGIA**

Ardoak • likorrak •  
freskagarriak

Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66 • ELIZONDO

**IPINGI**

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939  
ELIZONDO

**OFERTAK:**

Blusak ..... 1.900  
Galtza Motzak ..... 2.950  
Zapelak ..... 990  
Boltsoak ..... 990

*Txandalak erdi prezioan*



**Pierresenea**

**OSTATU - JATETXEA**

*Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa*

Iturriotz Auzoa • ☎ 592043 • ORNOZ-MUGAIRI

**SAS KAITZ**  
fontanería  
calefacción



Empresa colaboradora de

**Era guzietako instalazioak:**  
**Etxekoak, industrialak...**

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO



## BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta

Urgentziak ..... 088/061

Osasun Zentruak

Elizondo ..... 452367 / 580235

Doneztebe ..... 450300

Lesaka ..... 637428 / 637336

Leitza ..... 510248 / 510573

Nafarroako Ospitaleak

Nafarroako Ospitalea .... 102100

SSko Urgentzi

Zerbitzua ..... 246750

Virgen del Camino

Erresidencia ..... 109400

Gurutze Gorria ..... 226404

Gipuzkoako Ospitaleak

Irungo ospitalea ..... 614600

Gipuzkoako ospitalea .... 460299

Erresidencia ..... 453800

Anbulatorioak

Irun ..... 630264 / 621106

Anbulantziak

Oitz ..... 450242 / 450805

DYA

Lesaka

(Larrialdiak) ..... (943) 464622

Doneztebe

(Larrialdiak) ..... 171717

FUNERARIA

Doneztebe ..... 637404

Elizondo ..... 580924

Lesaka ..... 637404

Suhiltzaileak

Ornoz-Mugairi ..... 592255

Garraioak

Bidasotarra ..... 631150

Baztanesa ..... 580129

Leitzaran ..... 515018

Aberiak:

Iberduero ..... 450335 / 450336



Belateko zubi berrietan paratzen dituzten abe tzar haundi hoietako bat garraiatzen ari zirela, ez-beharra gertatu zen errepideko bihurgune batean, eta horren ondorioz, bide-bazterrak garbitzen ari zen langile bat hilik suertatu zen abeak azpiak harturik.



Argazkian ageri den jende multzoa, Nafarroako Aurrezki Kutxak Bordelera antolatu zuen bidaiara joandakoak dira. Ageri denez, arrakasta handia izan zuen aurten ere inizatiba honek. Zona osoko hirurehun bat lagun bildu ziren erakusketa ikustera.



## BIDAXKA

OSTATU - JATETXEA  
GOSARI-BAZKARI-AFARI

- KARTA
- MENUAK
- PLATER KOMBINATUAK
- KAXULAK
- HANBURGESAK

Uraldea, 2 - BERA  
☎ (943) 3 13 21



ZURE ARGAZKIAK  
ORDU BATEAN  
EGITEN DITUGU

EZKONTZETAKO ERREPORTAIAK

LA 100 URTE KALITATEA ETA  
PROFESIONALITASUNA ESKEINIZ

ELIZONDO  
Tel. 58 01 55

DONEZTEBE  
Tel. Fax. 45 08 25





## X. Pilotarien Batzarra burutu zen Lesakan ekainaren lehen asteburuan

Pilotaren inguruko hainbat jende eta erakunde bildu ziren bertan

Ekainaren 3 eta 4an ospatu zen Lesakan Pilotarien Batzarraren hamargarren edizioa. Igandean, jendez gainezka ageri ziren herriko karririk eta besta giroan burutu ziren ekitaldi gehienak. Izan ere, San Fermin egunaren itxura zuen egitarauak: goizean diana txistulari eta trikitilarien eskutik, agintarien elizarako joan etorria bandaren laguntzarekin eta meza ondotik, zubigainekoa. Bazkarian hirurehun lagunetik goiti elkartu ziren.

### HAINBAT

#### PERTSONALITATE ETA ERAKUNDE OMENDU ZIREN

Bazkariaren ondotik, pilota munduan nabarmendu diren hainbat pertsonai eta erakunde omendu zituen Pilotarien Batzarrak. Honela, Lesakako Jose Gabriel Maritxalar 'Bittiri' pilotari afizionatu ohia eta Marcelino



Jose Gabriel Maritxalar 'Bittiri' eta Marcelino Sanjurjo lesakarrak omendu zituen, bertzeak bertze, Pilotarien Batzarrak

D. Noticias

Sanjurjo kazetaria, Etxalarko Marcelino Bergara 'Bergara I', Iruritako Laxoa elkar-tea edo Elizondoko Antxitonea trinketea, bere ehungarren urtebetzean gogoratu ziren. Hauekin batera, bertze zeinbait pertsonai omendu ziren. Guztira, 1.300.000 pezetako au-

rrekontua zuen ekitaldi honek, 600.000 pe-zeta udalak paratuak.

#### AFIZIONATU ARTEKO PILOTA PARTIDUAK

Honelako ospakizun batean ezinbertzekoa zenez, larunbatean jokatuko ziren pilota partiduetan. Goizean, etorkizuna badagoela era-

kutsi zuten maila tikienetako pilotariek. Arratsaldean berriz, afizionatu mailako txanda izan zen. Bi partiduetan izan ziren ikusgai, honako emaitza hauekin: Esain I-Iparagirre, 22; Irigoien-Zabalo, 17. Balerdi III-Balerdi II, 21; Otxoteko-San Miguel, 22.

### Pierola-Etxabarri, Baztango emakumeen IV. Pala Txapelketaren irabazle

Joan den maiatzaren 27an burutu zen Baztango emakumeen IV. pala txapelketaren finala, Iruritako Aranabia frontoian.

Bertan, M<sup>a</sup> Luisa Pierola almandoztarrek eta Oronozen jaio eta Lesakan bizi den Sabina Etxabarrik osatutako bikotea nagusitu zen, 35-25 irabazi baitzuen M<sup>a</sup> Jose eta Rosa Dagerre erratzuarrek osatutakoari.

Guztira hamar bikotek emana zuten ize-na txapelketa honetan eta urtetik urtera, partehartzaile kopurua haunditzeaz gain, jokuaren maila hobetzen ari dela nabari da.

### Idoia Mariezkurrena labaiendarra Euskadiko txapeldun jabalina jaurtiketan

Beintza-Labaiengo Idoia Mariezkurrena, Pamplona Atletico taldeko jabalina jaurtitzailea, Euskadiko txapeldun gelditu da modalitate honetan. Txapelketa ekainaren 4an burutu zen Iruñeko Larrabide estadioan eta Labaiengo Sarasea etxeko atleta gazteak ez zuen kontrario haundirik izan,

kontuan hartuz, estatu mailan ere jaurtitzaile onena dela. Bere jaurtiketa onenean 53 metro eta 62 zentimetro-ra bota zuen jabalina eta zilarrezko domina eskuratu zuen Marta Ruiz eibartarrak ezin izan zuen 39 metro t'erdikoa baino jaurtiketa luzeagorik egin. Hurrengo garaipenaren zain gelditzen gara.





# Espainiako I. Mendi Bizikleta Itzulian bikain aritu da Garro

Txirrindulari beratarrak tarteko helmugen saria irabazi du

Juan Karlos Garro, 26 urteko txirrindulari beratarra sasoi ederra erakutsi du Espainiako I. Mendi Bizikleta Itzulian. Estatu mailan lehenengo aldiz antolatu da hone-lako itzuli bat eta erran daiteke Juan Karlos historiara pasatuko dela, bera izan baitzen probaren lehen maillot horia jantzi zuena. Lehendabiziko bi etapak Garrok irabazi zituen eta nabari zen nazioarteko izarrei ere aurre egiteko gai zela. Suerteak, ordea, ez zion sobera lagundu eta pintxazoen ondorioz denbora dexente galdu zuen.

Halere, Orbea taldean ari den txirrindulari beratarra ez da esku hutsik bueltatu. Sailkapen orokorreko bortzgarren postuarekin batera (lau egunez

lider izan ondotik), erregularitatean bigarrena izan da eta tarteko helmugei dagokion maillota eta saria bereztat izan dira.

## MUNDUKO TXAPELKETARI ETA OLINPIADEI BEGIRA

Garrok baikortasunez begiratzen du etorkizuna eta pixkanaka bere helburuak betezea espero du. Nafarroa, Euskadi eta Espainiako txapelketarekin batera, Coronas eta Euskadiko Openetako zenbait proba gelditzen dira oraindik. Garrantzitsuenak, halere, irailan burutuko den Munduko txapelketa izanen da. Bertan, estatuko ordezkarien artean lehendabiziko bi postuetako bat eskuratzeko badu bere ametsa beteko du, Atlantako Joku Olinpikoetan parte hartzea, alegia.



Juan Karlos Garrok dagoeneko estatu mailako mendi bizikletaren errealitate bat dela erakutsi du Espainiako I. Itzulian. Bortzgarren gelditu da sailkapen orokorrean

## Bate pronto

### Unai Apeztegia iturendarrak

Bergarako Hiria txapelketa irabazi zuen Artolarekin batera. Finalean 22 eta 16 irabazi zieten Berasaluze VII eta De Luzeri. Iturendarra afizionatu mailako atzelari onenetako bat da gaur egun.

### Jon Bru garaile

Eskualdeko jubenil mailako txirrindulariak biltzen dituen Urtxintxa-CSI taldeak denboraldiko lehen garaipena eskuratu zuen Kastejonen ekainaren 4ean. Jon Bru beraterra nagusitu zen sprintean eta 43 lagunez osatutako taldean lehendabizikoa ailegatu zen.

### Laxoa txapelketa azken txanpan

Ekainaren 11 eta 18ko finalerdien ondoren, ekainaren 25ean burutuko da XVI. laxoa txapelketaren finala.

## Berrogeita hamar neska-mutikok parte hartu zuten Baztango atletismo ihardunaldian

51 neska-mutikok parte hartu zuten maiatzaren 24an burutu zen Baztango atletismo ihardunaldietan. Hiru kategoriatan banatu ziren: 1981 eta 82an jaiotako haurrak, 83 eta 84an jaiotako alebinak eta 85-86an jaiotako benjaminak. Ondoko probekin batera 4x100 errelebo proba korritu zen kategoriaz guzietan.

### SAILKAPENAK

#### Benj. neskek:

- 60 metro:
- 1. Maitane Sobrino
- Luzera jautzia:

#### 1. Maitane Sobrino

#### Benj. Mutikoak:

- 60 metro:
- 1. Urki Munarriz
- 200 metro:
- 1. Urki Munarriz
- Luzera jautzia:
- 1. Iñigo Plaza
- Alebinak, neskek:**
- 60 metro:
- 1. Ainhoa Iturralde
- 300 metro
- 1. Amaia Irigoien
- Luzera jautzia:
- 1. Amaia Irigoien
- Alebinak, mutilak:**
- 60 metro:
- 1. Unai Arraztoa
- 300 metro:

#### 1. Iñaki Mihura

- 800 metro:
- 1. Iñaki Mihura
- Luzera jautzia:
- 1. Iñaki Mihura
- Haurrak, neskek:**
- 80 metro:
- 1. Encarna Telletxea
- 400 metro:
- 1. Izaskun Irungarai
- Luzera jautzia:
- 1. Encarna Telletxea
- Haurrak mutilak:**
- 80 metro:
- 1. Jose M<sup>a</sup> Arriada
- 400 metro:
- 1. Iñaki Telletxea
- Luzera jautzia:
- Jose M<sup>a</sup> Arriada.

## Hamabostaldiko Jokaldiak



**Idoia Mariezkurrena**  
Beintza-Labaiengo atleta.

Euskadiko jabalina jaurtiketa txapelketa irabazi berria du, izugarrizko aldea atereaz bigarren sailkatuari. Pamplona Atletico taldean ari den neska honek ezuste bat baino gehiago emanen du.

**Beti Gazte** futbol taldea.

Erregionaleko lehen mailara itzuliko dira heldu den denboraldian. Bigarren zati ona egin badute ere (azken 12 partidutan lehenbiziko 26tan haina puntu ateri dituzte), ezin izan diote Preferente kategoriarri eutsi.



# AGENDA EGUNEZ EGUN

## BESTAK

### ALMANDOZ

► Ekainaren 14tik 18era. Ikus xehetasunak 21. orrialdean.

### ARIZKUN

► Ekainaren 23tik 26ra. Ikus xehetasunak 21. orrialdean.

### SALDIAS

► Ekainaren 23tik 26ra. Ikus xehetasunak 17. orrialdean.

### DONEZTEBE

► Ekainaren 28tik uztailaren 2ra. Ikus xehetasunak aparteko gehigarrian.

### ERRATZU

► Ekainaren 28tik uztailaren 2ra. Ikus xehetasunak 21. orrialdean.

## ERAKUSKETAK

### BERA

► Ekainaren 24tik 25era. Ikasleen margo erakusketa Kultur Etxean, arratsaldeko 7etatik 9etara.

### LEITZA

► Ekainaren 18tik uztailaren 9ra. Tresna eta Ohitura zaharrak. Amazabal Pilotalekuan goizeko 11,30etatik 1,30etara eta arratsaldeko 4etatik 8etara.

# AGENDA PRAKTIKOA

## ERREZETA



### 'Osso Bucco' milanesa erara



Daniel ARRIADA  
Sukaldaritza ikaslea  
•AZPILKUETA•

#### Osagaiak

- Italiar pasta (tallarinak) •
- aratze mortzilloa puskatua •
- azenariora • pierrexilla • tipula •
- baratxuria • erraimua • perrexila •
- ezkia edo toimilloa • ardo txuria •
- tomate onduak • oliba olio • piperrautsa •

#### Prestatzeko manera

Mortzillo puskei gatzia eta piperra bota. Tipulla, porrua eta azenariora mehe-melhe xehatu.

Tomateak ur beroan pasatu, azala kendu eta puska lodietan moztu. Haragia irinean pasatu eta zartagi batean prexitu bi aldeetatik. Tipula erantsi eta su bigunez berotu. Ondoren azenariora, tomatea eta porrua erantsi. Su ezitan utzi eta ardo txuria, gatzia eta piperrautsa bota eta saldarekin estali eta bi ordu su motelean utzi. Bertzal-

detik tallarinak eginen ditugu. Haragiarekin lortutako saltsa txinoan pasatu. Zerbitzerakoan, haragia saltsarekin paratu, ondoan tallarinak gurinarekin jarriko ditugularik.

## BASERRIA



### ❖ ZERRIKIA ❖

- Zerrikurnea (20 kilokoak): 5.500 pzta.
- Zerri gizona (95-100): 190 pzta/kilo
- Zerramak: 120-130 pzta./kilo bizirik.



### ❖ BEHIKIA ❖

- Aretze gizenak:
  - Idixkoak: Pzta./kg. Kanal
- |             |     |
|-------------|-----|
| Extra ..... | 570 |
| 1.koa ..... | 540 |
| 2.koa ..... | 500 |

- Urruxak: Pzta./kg. Kanal
- |             |     |
|-------------|-----|
| Extra ..... | 580 |
| 1.koa ..... | 550 |
| 2.koa ..... | 510 |
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.

- Aretze tikiak (1,5 egun ingurukoak):
- Nabarrak: urruxak 22.000 eta idixkoak 33.000 Pzta.
- Mestizoak: urruxak 35.000 eta idixkoak 50.000 Pzta.
- Behi zaharrak: Behi nabar gizona: 420 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 480 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE, ZUBIRIA MINDEGIAK...



### ❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza

- Bertako sagarrondoa 950.
- Udareondoa 950 pzta.
- Gerezi ondrea 1.050 pzta.
- Aranondoa 1.050 pzta.



### ❖ BARAZKIAK ❖

- Muxika 870 pzta.
- Piper txorizero zientoa 800.
- Piper morro zientoa 800.
- Piperminak zientoa 600.

## koxkonta



Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA

## ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN

Tfnoa: 45 04 91



### Etxe berrien eraikuntza (I)



**Arkitektoak obraren aurrekontuaren portzentai bat kobratuko digu, horregatik proiektua ongi irakurri beharko dugu sinatu aurretik**

Gure etxea egiterakoan, mota guztietako zalantzak eta arazoak sortzen zaizkigu, batez ere, aurrekontua haunditu zaigulako edota arkitekto eta aparejadoreek nahi duguna egiten ez digutelako. Horregatik, hobe genuke etxe bat eraikitzeke beharrezkoak diren preakzioak kontutan izatea.

1.- Arkitektoa da komeni zaigun lurra zein den hobekien erratan ahal diguna. 'Rustiko' delako lurra merkeena da, baina honetaz gain 'lururbanizagarria' edo 'urbanoa' aurki ditzakegu. Lurra zein motakoa den jakiteko Udala-Hirigintza Planeamenduan begiratu beharko dugu.

Lur urbanoa izanez gero, etxea eraiki dezakegu. Urbanizalea izanez gero, urbanizatu egon arte esperatu beharko dugu. Lurra rustikoa baldin bada, ezin da etxea goratu.

2.- Lurra lortu ondotik, gure etxeak zein baldintzak bete beharko dituen jakiteko, "zedula urbanistikoa" eskatu beharko dugu udal-txean. Txosten honetan zein etxe mota, guttinez egin behar dena, etxearen zabalera eta horrelako baldintzak azalduko zaizkigu.

3.- Prezioa "eskaintza eta eskariaren legearen" arabera izanen da. Dena den, kokapenak eragin handia du eta egoera juridikoa ere kontutan hartu behar da, kargurik gabeko zonaldea izatea hobe baita (ez hipotekatua...).

4.- Gure buruari arkitektoa edo aparejadorea behar dugun galdetuko diogu, zen-

*Kokapenak eragin handia du etxearen prezioan eta egoera juridikoa ere kontutan hartu behar da, kargurik gabeko zonaldea izatea hobe baita*

bat kobratuko diguten edo zein diren haien betebeharrak. Legeak dioenez, etxe berri bat eraikitzekotan edo etxe baten estruktura aldatzekotan gaudenean, arkitektoaren kontratazioa behar dugu. Obra berri baten kasuan, bi obra zuzendaritza, hau da, bi arkitekto edo arkitekto eta aparejadore bat behar dira. Arkitektoa obra guztiaren arduraduna da eta bi lan mota egiten ditu: eraikuntza proiektua eta obraren zuzendaritza eraman. Etxearen proiektua bezeroaren adostasunarekin egingen da eta obraren aurrekontua agertuko da.

MIKEL BEZUNARTEA  
IRATXE-KOA

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
  - Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

### IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratatutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## OSPAKIZUNAK

### ELIZONDO

► **Ekainaren 18an**  
Gaztanberaren  
Kofradiaren eguna

## GUARDIAKO BOTIKAK

► **Ekainaren 12tik 18ra** Arantza, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

► **Ekainaren 19tik 25era** Igantzi, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

► **Ekainaren 26tik 2ra** Lesaka, Ituren, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.



## ETXEBIZITZAK

**BAZTAN.** Pisu edo base-  
rritxo baten bila nabil, alo-  
katzeko. ☎ 451746.

**Etxe** edo **baserria** alokatu  
edo erosiko nuke ☎ 450326.

**BERA.** Pisua salgai he-  
rriaren erdi aldean. ☎  
631035.

**BERA.** Pisua salgai. ☎  
630733.

**IRURITA.** Bi etxebizitza di-  
tuen etxea salgai bere te-  
rrenoarkein. % 452180  
(Juan Mari, arratseko 8 eta-  
tik aitzinera).

## DENETARIK

**Belarra** igotzeko makina  
elektrikoa salduko nuke. ☎  
450998. Goizetan 7etatik  
8etara eta arratsaldetan  
7,30etatik 8,30etara.

**Uztailan** eta **irailan**  
Donostia edo Irundik  
Lesakara etortzeko kotxea  
behar dugun ikasleak ga-  
ra. Eguerdiko 1,30-2ak al-  
dera. Gastoak banatuko ge-  
nituzke. ☎ 637873

(Izaskun)- 631046  
(Jaione).

**Kartelak,** Buzoiratzeko pa-  
perak, Bisita txartelak,  
Faktura Talonarioak... egi-  
ten ditugu. Merke eta az-  
kar. ☎ 631188.

**Senar-emazte** logela, oso-  
osorik salgai. ☎ 630595.

**Zeramika** lantzeko esku-  
ko tomoa erosiko nuke. ☎  
450769.

**Lesakan** ardotezia salgai  
edo alokatzeko, arrazoiz-  
ko prezioan. ☎ 637453.

**Bi bizikleta,** 'Motorica'  
markakoak, neskenak, pa-  
seorakoak, salgai. ☎  
510498.

## AZIENDAK

**Ardi zakurkumeak** salgai.  
☎ 604624.

**Baserriko oilaskoak** sal-  
gai. ☎ 637398 (bazkal or-  
duetan).

**Miga** txuri-gorria, bi urte-  
koa, salgai. Zortzigarren  
hilabetean dago ernari. ☎  
634034 (Arantzeta).

**Ardi bat,** buztan luzea eta  
belarrian txapa horia 15

zenbakiarekin, Frain ingu-  
ruan galdu zaigu. Ikusi ba-  
duzu deitu ☎ 627618ra.

**Hameka hilabeteko** asto  
arra salgai. ☎ 514168  
Goizueta, ilunabarretan.

## LANA

**Gasze** tituludunak euska-  
ra klaseak emanen lituzke  
Igantzin. Interesatuak egon  
daitezkeenak deitu ☎  
637397ra.

**Igeltsero ofiziala** es-  
kaintzen da lana egiteko.  
Etzeko lan tikiak ere egi-  
ten ditut. ☎ 615124 (gaue-  
ko 9etatik aurrera).  
Esteban-Saldias.

## IBILGAILUAK

**Lada-Niva** 1.6 autoa sal-  
gai. Hiru urte eta 26.000  
Km. ☎ 581210.

**Citroen CX** Turbo-diese-  
la salgai. Arras prezio one-  
an. ☎ 627642. Arratsetan.

**Ibilgailuak** salgai: Land  
Rover arina (NA-S), BX  
GTI (NA-V), C15 Diesela

(NA-U) eta R-18 Diesela  
(NA-M). ☎ 450286 (Pello).

**Peugeot 405,** 16 balbula  
eta extra askorekin, NA-  
AH matrikuladuna salgai.  
☎ (943) 216852 edo  
219018 (goizeko 8etatik  
1ak arte).

## AGURRAK

**Elizondoko Maider** S.ri:  
Zure irrifarrak zoratzen nau.  
Zutaz maitemindurik da-  
goen Lekarozko Institutuko  
mutil bat.

**Urdazubiko Aliziari:** Nahiz  
eta zure urtebetetzea pa-  
sa (ekainak 2), zoriendu  
nahi zaitugu eta txanpai-  
na elkarrekin hartzea es-  
pero dugu. Baztandik.

## KIROMASAIA

**Iñaki Razquin**

### KIROL MASAIA

- Besoa - Belauna  
- Ukalondoa - Zurmioa

### GIHAR LASAITZEA

### BIZI MASAIA

- Zerbikalak - Kaderak  
- Lunbarrak - Ziatika eta sasi-ziatika

### ERLAJAZIO MASAIA

Gihar kontrakzioak, lanean postura txarrean  
egoteagatik...

**TERAPEUTA DIPLOMATUA**  
Kontsulta leku zentrikoan  
(Urdanibia Plaza ondoan)

Larretxipi 17 Behea - IRUN Tel: 943-63 34 81

Ordutegia: Astelehenetik ortzirralera 16.00tik 20.00ra  
Larunbatetan 10.00tik 14.00ra R.P.S.: 199/94

## IKASSOFT

GRUPO

❖ **Zerbitzu informatikoak**

❖ **Formakuntza Informatikorako  
ikasgela**

❖ **Aholkularitza Fiskala,  
Laborala eta Kontablea**

**ENPRESA ZERBITZUAK**

Señor de Aranzate, 8 Behea • IRUN • Faxe eta Tfnoa: (943) 63 35 91



# ttipi-ttapa

*Etxe xoko guzietan!!*

## HEDAPENARI BURUZKO DATU KONPARATIBOAK

	Diario de Navarra	EL DIARIO VASCO	egin	DEIA	Egunkaria	Noticias	SUD OUEST	ttipi-ttapa
<b>BAZTANALDEA</b> .....	374-558	71-98	80-126	9-11	12-17	134-188	0-0	1.507
Baztan (1) .....	339-523	71-98	76-120	9-11	12-17	131-185	0-0	1.337
Urdazubi .....	25-25	0-0	3-5	0-0	0-0	3-3	0-0	101
Zugarramurdi .....	10-10	0-0	1-1	0-0	0-0	0-0	0-0	69
<b>BORTZIRIAK</b> .....	127-231	603-799	154-192	13-14	32-35	53-61	0-0	1.878
Arantza .....	3-3	10-10	5-5	0-0	0-0	0-0	0-0	163
Bera .....	55-113	300-420	65-95	1-2	11-14	25-30	0-0	818
Etxalar .....	17-18	28-29	16-17	1-1	5-5	8-9	0-0	176
Igantzi .....	12-12	45-60	3-10	0-0	0-1	0-0	0-0	142
Lesaka .....	40-85	220-280	65-65	11-11	16-15	20-22	0-0	579
<b>LEITZALDEA</b> .....	113-206	93-166	136-186	6-6	16-17	21-25	0-0	888
Areso .....	4-4	1-1	10-0	0-0	0-0	0-0	0-0	54
Goizueta .....	0-0	30-50	45-65	0-0	10-10	0-0	0-0	200
Leitza .....	109-202	62-115	81-121	6-6	6-7	21-25	0-0	634
<b>MALERREKA</b> .....	227-366	96-163	56-78	1-2	14-12	67-77	0-0	1.181
Doneztebe .....	158-275	70-132	38-54	1-2	8-6	35-38	0-0	304
Ituren .....	0-0	0-0	10-15	0-0	3-3	0-0	0-0	118
Sunbilla .....	30-52	25-30	7-8	0-0	1-1	27-34	0-0	168
Herrietan(2) .....	39-39	1-1	1-1	0-0	2-2	5-5	0-0	(2) 591
<b>SARA</b> .....	0-0	4-3	16-15	3-2	2-1	0-0	250-230	101
Denetara .....	841-1.361	867-1.229	442-591	32-35	76-82	275-351	250-230	5.967

HEDAPENA ZENBAKITAN	
DEIA	32 - 35
Egunkaria	76 - 82
SUD OUEST	250 - 230
Noticias	275 - 351
egin	442 - 591
EL DIARIO VASCO	867 - 1.229
Diario de Navarra	841 - 1.361
<b>ttipi-ttapa</b>	<b>5.967 (3)</b>

*Saltoki eta  
posta  
zerbitzutik  
eskuratutako  
datuen  
arabera*

(1) Baztango herri guzietako kopuruak batera emanak daude, korreoz hartzen direnak barne.  
 (2) Malerreka eta Bertizaranako herri guzietako kopuruak batera daude, Doneztebe, Ituren eta Sunbilla izane ezik, korreoz hartzen direnak barne.  
 (3) kopuru hauek 1995eko ekainaren 15ekoak dira.





CAJA DE AHORROS DE NAVARRA  
NAFARROAKO AHIRREZKI KUTXA